

Arrasate

UPRESSS

1999ko
abenduak 10
475. zenb.



Santa Luzia, bistia
konserbetako grazia

IKUSPEGIA: JM VELEZ DE MENDIZABAL • KULTURA ELKARRIZKETA: EKON
EUREN IKUSPUNTUTIK: XABIER LETONA • KIROL GAIA: PILOTA JAIALDIA

1.410.000 saritan

Ibai-Arteko merkatariorik aurtengo Gabonetan 1.000 eta 5.000 pezetako sariak aurkitzeko aukera ematen dizuten txartelak oparituko dizkizugu.

Zorte on.

Urrats.....	Aholkularitza	Muruamendiaraz .	Gozotegia	Ipek.....	Larrukiak
Ehune.....	Altzariak- apaintzea	Onaindia	Gozotegia	Ariane.....	Lentzeria
Etxe Mobiliario ...	Altzariak- apaintzea	Landaluze.....	Harategia	Nerea.....	Lentzeria
Eya Sukaldeak ...	Altzariak- apaintzea	Otamendi.....	Harategia	Sikol.....	Lentzeria
Epelde.....	Argazki denda	Parlance.....	Hizkuntza akademia	Titare.....	Lentzeria
Foto Imagen.....	Argazki denda	JG Impresión Digital	Inprimategia	Oihana.....	Lora denda
Ikatz.....	Argazki denda	Anboto.....	Inmobiliaria	Altuna.....	Lurrindegia
Tomas.....	Arraindegia	Izozkitegi.....	Izoztegia	Lore.....	Lurrindegia
Mikel Lasa.....	Aseguruak	Feli janari denda..	Janari denda	Murgoitio.....	Lurrindegia
Seguros Elorza....	Aseguruak	Erosle.....	Janari denda	Zabaleta.....	Lurrindegia
Kutxa.....	Banketxea	Kili-Kolo.....	Jantzi denda	Zarraoa.....	Lurrindegia
Euskadiko Kutxa..	Banketxea	Belem.....	Jantzi denda	Ceciaga.....	Mertzeria
La Caixa.....	Banketxea	Confecciones		Lilura.....	Oihalak
Tokion bazarra ...	Bazarra	Maza.....	Jantzi denda	Ezarki.....	Oinetako konponketak
Elkoro expert.....	Bazarra	Flash.....	Jantzi denda	Alonso.....	Oinetakoak
Eroski Bidaiak....	Bidai agentzia	Gili-Gili.....	Jantzi denda	Beatriz.....	Oinetakoak
Karmele.....	Bitxitegia	Haurtxoa.....	Jantzi denda	Egizabal.....	Oinetakoak
Zubiaga.....	Bitxitegia	Klas.....	Jantzi denda	Totem.....	Oinetakoak
Aldedi.....	Burdindegia	Laket.....	Jantzi denda	Txikiak.....	Oinetakoak
Arregi.....	Enmarkazioak	Lasagabaster.....	Jantzi denda	Yoar.....	Oinetakoak
Artea.....	Enmarkazioak	Los Vaqueros.....	Jantzi denda	Zabala.....	Oinetakoak
Aranzabal.....	Etxeko tresna elektrikoak	Luko.....	Jantzi denda	Zubia.....	Oinetakoak
Eya.....	Etxeko tresna elektrikoak	Mabel.....	Jantzi denda	Beinke.....	Opari denda
Milar Elkoro.....	Etxeko tresna elektrikoak	Markiegi.....	Jantzi denda	Galeria 44.....	Opari denda
Alai.....	Gozoki denda	Troko.....	Jantzi denda	Garay Saskiak ...	Opari denda
Hemen.....	Gozotegia	Ume.....	Jantzi denda	Garagorri.....	Optikak
		Z-R.....	Jantzi denda	Tamayo.....	Paper denda
		Zur-Lur.....	Jostailuak	Portaloi Kioskoa ..	Prentsa /aldizkariak
		Arrasate Kirolak ..	Kirol denda	Kajoi.....	Taberna
		Okendo Kirolak ...	Kirol denda	Lorategi.....	Taberna
		Uriarte Sport.....	Kirol denda	Monte.....	Taberna
		Hire.....	Larrukiak		

San Nikolas eguneko ospakizunak

Irakurri berri dut aipamen luzexka bat egunkari batean San Nikolas egunari buruz eta lerro labur hauek idaztera jarri naiz, hain zuzen ere, ohituraren jatorria ezezaguna dela esaten baita, eta ene ustez hori ez da horrela.

Ohituraren ardatza ez da, batzuek alderantziz uste dezaketen arren, gure herria.

Hori baino bekoki zabalagoak izan behar dugu! XVI mendera egin behar dugu salto, San Nikolas-en zeremoniaren lehen erreferentziak aurkitzeko. Miguel Angel Perez Priego, UNEDeko irakasleak Eusko Ikaskuntzaren

Europar herri antzertia (1999) liburuan honela idatzi zuen:

“Ertaroan, diako-
no, abade, elizmutil
eta azpidiakonoek
ospatzen zituzten jai
barregarrietatik —
tripudia, larvae,
theatrales ludi—



JM Velez de Mendizabal

S. Nikolas egunekoari “bolo-bolo” hasi zaizkio deitzen. Ez luke horrela izan behar.

politenetako bat inozoen gotzain edo obispoarena zen —*episcopum puerorum*.

Hasiera batean, San Nicolas egunetik Inozoen eguna bitartean ospatzen zen jai dugu, eta beraz neguko erorjaitan (saturnaletako *libertates decembris*) sartzen zen, bete betean.

Jai horien helburua, ume eta izaki inozoen gorespina egitea zen, eta gizarteko

betebeharren ordenan zeharoko aldaketa egiten zen. Horrela, eliz-abetesbatzako mutil batek obispoaren zeregina hartzen zuen. Mutilari herriak begirune osoa aurkezten zion, jai barregarri batean”.

Jaia oso ezaguna izan zen Ertaroko European, Suitzako Saint Galleko lurralde askotara hedatu baitzen. Eta, noski, gure artera ere iritsi zen. Nik dakidalarik, gure artean Gipuzkoako Segura, Arabako Agurain eta Zalduondo, eta Nafarroako mendialdeko zenbait

herrixkatan ospatzen da San Nikolas eguna.

1981eko azaroaren 29an Donostiako *Hoja del Lunes*-en argitaratu nuen artikulu batean, “San Nikolas jai Gipuzkoa eta Araban”, obispoaren berri ematen nuen. Ez dakigu noiz desagertu zen Arrasaten mutila obispoz jantzeko usadioa —inoiz izan zela suposatuz gero, noski— baina koplan garbi dago aipamena: “San Nikolas coronado, arzobispo Mariandres”.

Arrasaten ez dugu jaiaren eskusiba. A! Eta kantaren erdara-euskara nahasi horrek, ene ustez, mutil euskaldunak gotzain erdaldunaren funtzioa betetzeko era barregarria adierazten digu. Bestalde, eta bataioen ondoko diru eta litxarrerien bilketari izena lapurtuz, San Nikolas egunekoari ere “bolo-bolo” hasi zaizkio deitzen. Ez luke horrela izan behar, “volo” hitza, bataioa lateraz egiten zeneko garaitik baitator, “nahi al duzue ume hau elizaren baitara sartzea” abadeak galdetzen zuenean, aita-ama pontekoek “volo” —bai, nahi dut— erantzuten zuten eta. Hortik, beraz, guk gure bataioak ospatu ondoko bilketari ““volo volo” deitura ematea. ■

“Etnia 2000 gazte garenon edo gazte sentitzen garenon bilkura da ‘arima errebeldeen belaunaldi berria”.

Ekon

2.920.000

Uarkape inauguratzeko

Arrasateko Udalak, diru kopuru hori gastatuko du Uarkape Udal Pilotalekuaren inaugurazio egunean, abenduaren 21ean. Tartean Aspe enpresari ordaindu behar zaizkion gastuak daude.

ITURRI ONETIK

Mondragon Unibertsitatea eta bailara

Joan den azaroaren 24an Debagoieneko alkate eta zinegotziak Antzuolako udaletxean elkartu ziren, arratsaldeko 17:00etan. Mankomunitateak hileroko egin ohi duen lehenengo bilera egitekoa zen hantxe. Jende multzo handia bildu zen, beraz.

Hori aprobetxatuz, Jabier Retegi Mondragon Unibertsitateko errektorea ere Antzuolara joan zen, MU lantzen ari den epe luzeko planaren berri ematera.

Jabier Retegik badaki Debagoieneko agintarien laguntza eta eskuhartzea ezinbestekoa izango dituela unibertsitateak datozen urteotan egingo dituen urratsak ziurtatzeko. Horregatik nahi izan zuen unibertsitatearen asmoen berri zuzenean berak eman. Entzuleak nahiko konforme irten ziren bileratik.



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otxalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Manjo Deogracias, Ubane Madera, Maider Osa. **Publizitatea:** Nerea Zallo, Aranzazu Lagunilla, Aranzazu Arroabe. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Administrazioa:** Maite Urriolabeitia (Tel.: 943 71 23 90). **Diseinua:** Maddi Trubuelo. **Asteburuetako berriemakileria:** Monika Belastegi. **Kolaboratzaileak:** Mikal Irizar, Udaleko Gazteria Saila, Iker Barandiaran, Karmele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Legu-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oriati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maddi Trubuelo.



Arrasateko Udalerriaren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiararen laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

- Ostirala, 10**
 • Ruiz, Maalako Errabala
- Larunbata, 11**
 • Morales, San Andres
- Igandea, 12**
 • Azkoaga, Ferrerías
- Astelehena, 13**
 • Azkoaga, Iturriotz
- Astearte, 14**
 • Korkuera, Musakola
- Asteazkena, 15**
 • Irizar, Erguin
- Osteguna, 16**
 • Amezua, Santa Marina

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
 Iguatoria 943 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 943 79 39 00
 (emakumeak) 943 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

Gurutze Gorria

Bergara 943 76 55 76

DYA

Antzuola 943 78 71 57

Anbulatorioak

Arasate (Larrialdia) 943 03 53 00
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria 943 03 52 50
 • Espezialitateak 943 03 53 11
 • Ikuskatzailea 943 03 53 52
 • Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
 • Fax zenbakia: 943 03 05 14
 Aretxabaleta 943 79 74 58
 Aramaio 945 45 51 16

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

Udalzaingoa

Oñati 943 78 04 11
 Bergara 943 77 91 06
 Arasate 943 79 14 39
 Aretxabaleta 943 79 10 52
 Eskoriatza 943 71 44 07

Ertzaintza

Arasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
 Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 943 79 78 44
 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
 PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

Irratia

Arasate Irratia 943 79 58 77

ARKO-KO LAGUNEI

Gaur, azaroak 26, ziegako atea zabaldu eta zuek bidalitako gutuna eman didate. Urte askoan jaso izan ditut batzarretara joateko deialdiak, baina inoiz ez zaizkit heldu garaiz. Izan ere, orain dela hilabete gutxi batzuk arte, komunikazioen interbentzioa zela eta, beti jaso izan ditut berandu. Gaur jaso dudanak, berriz, aukera ematen dit batzarraren agertzeko. Ez dut uste, ordea, atea zabaltzeko moduko garrantzi handiko batzarra izango denik nire zaindarien-tzat. Halaz guztiz, gai zerrendaren zazpigarren puntuaz baliatuz, lerro batzuk bidal diezazkizuedanez, ez dut galduko aukera.

Urte hauetan guztietan hemen bileran zaudetenok lan handia egin duzue Arasaten, euskararen alde. Guk ere, nahiz eta erakunde zahar-berri hauek ezagutu ez, aspaldi egin genuen euskararen aldeko apustua eta, gure neurrian, jarrera pertsonalak hartu izan ditugu: ez dakienari irakaste-ko prest egonez beti eta guk geuk ere dagokigun arloetan erabiliz. Jarrera horrek, gutu-nei dagokienez adibidez, norberak idatzitako gutunaren erantzuna bi hilabeteko atzerapenarekin jasotzea esan nahi du, nahiz eta gutuna hartzen duenak jasotako egun berean erantzun. Bakoitzak neur dezala nolako balioa duen horrelako jarrera batek. Edonola, ez nator gure burua goraiatzera. Honekin soilik esan nahi dizuet, urrun egon arren, beti egin daitekeela zerbait gure

hizkuntza zuzpertz, erabili eta indartzeko.

Arlo honetan arrasatearrak badugu harro egoteko arrazoirik. Agian ez da gertatuko guk nahiko genukeen bezain laster, baina hizkera neurketetan euskara gora doa etengabe. Eta hori, lagunok, neurri handi batean zuei zor zaizue. Zer nahi duzue..., tarteka prest egon behar duzue loretxoren bat jasotzeko ere. Edozein modutan, honek ez du esan nahi hobe ez daitekeenik, mundu horretan zabil-tzatenok inork baino hobeto dakizue beti aurki daitezkeela baliabide eta tresna berriak. Eta ziur nago bide horretan zaudetela.

Bukatu aurretik, oroitarazi nahi dizuet euskal presopolitikoaren taldeko hogeiki kide gose greba mugagabeen daudela, gaur 32. egunean, hain zuzen ere. Euren aldarrikapenen arteko bat, Euskal Herrira eramatea da eta hori euskararen erabat lotuta dago; izan ere, inolako zalantzarik gabe, guztiok batera egonik, gure hizkuntza eskubideak hobeto bermatuko genituzke. Eta, nire ustez, Arasateko komunikabideek ere hori bultzatu behar-ko lukete indartsu, informazio zabala emanez.

Eta gaurkoz besterik ez. Animoak bidaltzen dizkizuet lanean gogor jarraitzeko eta, bidenabar, har ezazue guztiok nire besarkadarik beroena.

Enrike Letona
 Murtziako espetxea

ABENDUAREN 11N, GASTEIZERA

Idatzi honekin abenduaren 11n Gasteizen egingo den kale agerraldira deitu eta beronen zergatia azaldu nahi dizuegu.

Arabako Euskaltzaleen Elkarteak egin du agerraldi honetarako deialdia, azken aldian lurralde honetan PPK euskararekiko izan duen jarre-ra salatzen. Kale agerraldiaz gain, agiri bat ere kaleratu dute eta dozenatik gorako alderdi, sindikatu nahiz herri taldek sinatu dute. Agiri honek oinarrian hiru atal ditu:

Agertu du popularek Gasteizko haur eskoletan indarrean ezarri nahi duten eredu baka-rrak ez duela batere arrazoi-namendurik, ez pedagogiko-rik, ezta beste mota batekorik ere. Bigarrenik, aurreko legealdian Arabako Foru Aldundian lanean ziharduen Euskara Zerbitzuaren desagertzea gaitzetsi dute alderdi, sindikatu nahiz herri elkarteek.

Ondorio orokor gisa, agiri-riak gogora ekarri du Arabako gizarteak aspaldiko partez apostu argia egin duela euskalduntzearen alde eta, beraz, hainbeste alorretan erakutsi-tako borondate zehatza errespetatu beharra dutela agintean diren alderdiek, alde batekoak zein besteak izan. Egoeraren larritasuna kontuan izanda, eta denon lana denez euskararen ofizialtasuna lortzea, abenduaren 11n Gasteizen izango den kale agerraldira deitzen zaituztegu.

EHE eta AED

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
 Tel.: 943 79 81 82

UGARAN
 jatetxea

Garagartza auzoa
 Tel.: 943 79 76 58
 ARRASATE

M

MEMESA
 Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25


Zer deritzezu Santa Luzia eguneko striptease saioei?

Gero eta gehiago, Santa Luzia egunean striptease saioak antolatzen dira jostunen afarietan



Julio Iriondo
(67 urte)
Erretiratua

Horrelako gauzak ez zaizkit gustatzen. Alkoholarene eraginez egingo dira, bestela ezin dira ulertu.



Ramon Zuazubiskar
(55 urte)
Langilea

Ez da sartzen neure mentalidadearen barruan, baina onartu egin behar da.



Asun Garai
(60 urte)
Etxekoandrea

Gustatzen zaionarentzat ondo, baina ez da nire estiloa.



Maitane Mate
(31 urte)
Irakaslea

Ondo deritzot. Izanda naiz batean eta gustura ibili ginen, zeharo desmadraturik. Hobeto ibiltzen gara mutilak baino.



Garbiñe Etxagibel
(45 urte)
Etxekoandrea

Gaizki iruditzen zait. Ondo pasatzeko ez dago zertan mutil bat ekarri *stripteasea* egitera.



Mari Asun Abarrategi
(53 urte)
Etxekoandrea

Gaizki deritzot. Nik beste modu batean ospatuko nuke Santa Luzia eguna.



Jose Miguel Murillo
(35 urte)
Langilea

Ondo. Guk egin ahal badugu, zergatik ez eurek, ezta? Ni joango nintzateke eta ez litzaidake batere inportako nire emaztea ere joango balitz.



Angel Agirreazaldegui
(50 urte)
Langilea

Ondo dago. Emakumeek ere behar dute alor horretan irekitasuna.

Carlos Beltran de Guevara Berezibar Dk.

- Laneko ezintasunak (gaixotasun arrunta edo laneko istripuak)
- Gorputz kaltearen balorapena (trafiko, edozein motatako istripuak)

Udalaitz Mediku Zentroa

Ferrerias, 56 z/g • Arrasate • Tel.: 943 79 44 22

Bonet Ardotegia

Rioja ardoak • Duero ardoak • Priorat ardoak

50 marka desberdinetik gora

Cognac, Armagnac,...

Olarte 16 behea • Tel.: 943 79 58 23

USTEAK USTE

Udal politika telefonoz

Joan den ostiralean Antonio Palacios PPko zinegotzi gasteiztarra ez zen Arrasatera etorri Ibarretxe lehendakariak deitutako kale bilkuran parte hartzera. Ez omen zuen alkatearen jakinarazpenik jaso.

Azken osoko bilkuran ez zen PPko zinegotzirik izan. PPko zinegotziak apenas hartzen dute parte zuzena udalaren gestioan. Su etenarekin edo barik, gutxi agertzen dira udaletxean. Osoko bilkura batzuetan eta ezer gutxi gehiago. Horretara mugatzen da beren herrigintza Arrasaten.

Antonio Palacios hantxe dago, Gasteizen, bere alderdiak Araban duen bulegoetako batean lanean. Arrasatera noiz edo behin etortzen da, ahalik eta gutxien, eta edozein gairen inguruko iritzia eskatzen zaionean, telefonoz egin behar izaten da elkarrizketa.

Azken hauteskundeetan botoa PPri eman zioten arrasatearrek hausnarketa egin beharko lukete ea hori den Mondragoerentzat nahi duten gestio mota, telefono bidezkoa.

Joxe Aranzabal



Proposamen sasoiak

* Xabier Letona

Pauso bat atzera, hurrengo bietan aurrera egiteko. Horixe antzematen da ETAK iragarritako su-etenen apurketan. Gogor kolpatu zuen erabakiak euskal gizartea, eta lehenengo atentatuaren astindua ere ez da makala izango. Baina, oro har, datorkiguna jasateko ere, duela astebate baino prestatuago gaude. Koka gaitetzen gatazka eremu batean, beraz, eta bazterrera dezagun hamalau hilabete su-eten garaia bigarren plano batera. Horixe izan da: su-eten garai bat, erabaki horretan askok borroka armatuaren amaiera ikusi gura izan badu ere.

Ez gara bitxo bakar eta arraroak munduan, gurea baino askoz gatazka eta borroka gordinagoak daude, eta gurearen antzekotasun apur bat dutenetan ere —Irlandara begiratzen dugu sarri— gorabehera handiak izan dira. Baina komeni zaigunari heltzen diogu IRA desarmearekin konprometitu dela, esate batera eta iragandakoak ahaztu:

1996an nola apurto zuen su-etenaren IRAk Londresen.

Ez dut uste abertzaleek, generalean, ETaren su-etenen akabera ulertu dutenik, are gutxiago apurketaren arrazoa EAJ eta EARI leporatzea. Herritarrak, batetik, ez du borroka armatuaren itzulerarik gura. Bestetik, herritarrak ikusi du EAJ eta EA mugitu egin direla hamalau hilabete hauetan: gauzak egin egin dituztela. Gehiago mugi zitezkeela? Seguru baietz. Geldiune bat zegoela? Baita ere. Baina arrazoi horiek nahikoak al dira su-etenaren apurtzeko? Hori da jendeak horren ondo ulertzen ez duena. Eta gehiago: nola aurreratuko da

**“
Blindaje garaiak datoz berriro.
Espero dezagun gutxi blindatu behar izatea
”**

gehiago abertzaleen arteko elkarlanean eta eraikuntza nazionalan, gatazka giroan ala su-eten giroan? Begibistakoa dela uste dut. Baina galdarak era askotara egin daitezke eta alde askotara begira: ETaren rebulsiboa behar izan da, berriz ere, hemen gauzak mugi daitezken? Nora begira egon dira alderdiak ekaineko hauteskundeetatik hona?

Hilabete hauek gauza oso garrantzitsua utzi dute agerian: abertzaleen arteko kontsentsuan sakondu beharra, gatazkatik ateratzeko metodologiari dagokionez eta, nagusiki, eraikuntza nazionalari buruzko gutxieneko adostasun bat lortuz. Lurraldetasuna eta autodeterminazioa bai, baina nola, zein erritmotan, zeinen erabakiz, non... Bestela jai, ez dago zurrunbilotik ateratzerik. Hori da funtsezkoena, lehenbiziko pausoa; bigarren pausoa dator abertzale ez diren euskal herritarrekiko akordioa lortzea, hori ere egin beharko da eta. Tira, eskema bat da, baina egungo Euskal Herrirako logikoena ematen duena.

Blindaje garaiak datoz berriro, espero dezagun gutxi blindatu behar izatea. Baina gatazkatik, gatazkan gaudela pentsatuz aterako gara, ez bake garaian gaudela amestuz. Madril eta Paris aldean izan ezik, borondatea ikusi da hemen; atera diezaiogun zukua borondate horri.

* Kazetaria

Pando
ERROTULOAK
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabilioia)
Tel. / Faxe: 943 79 79 70

NAROKI
LIBURUDENDA
Portzelanazko panpinak
Jostailuak
Era guztietako opariak

NAROKI
BITXITEGIA
Zure gabonetako opariak hemen aurkituko dituzu



Bitxi bat eta oroitzapen eder bat inoiz ez dira urtearekin bukatzen

Bitxitegia



Erlojutegia

10

ostirala

■ ZINEA

Atsedena

■ KONTZERTUA
GAZTETXEAN

Ale-Hop techno eta hip hop talde gasteiztarra eta DJak izango dira Arrasateko gaztetxean. 22:00.

■ JAM ARETOA

Apolo Four Forty taldeak kontzertua eskainiko du Bergarako Jam aretoan. Sarrera 2.500 pta kostako da. 22:00.

■ ANTZERKIA
GAZTETXEAN

“Lección de orgasmo” antzezlan eskainiko du La Patro Teatro taldeak Aretxabaletako Gaztetxean. 22:30. Sarrera, 300 pta.

11

larunbata

■ ZINEA

La lengua de las mariposas, 17:00, 19:30 eta 22:00, Alai zineman.

■ KONTZERTUA
GAZTETXEAN

The Rabid Harpy bilbotarra eta *Magoos* bermeotarrak arituko dira Gaztetxean. 22:00.

■ JAM ARETOA

Alavach eta *Easy Ridert* taldeek kontzertua eskainiko dute Bergarako Jam aretoan. Sarrera aurrez 1.300 pta eta bertan 1.500 kostako da. Kontzertu hau *Rock Star* irrati programak zuzenean eskainiko du. 22:00.

■ UDAZKENARI AGUR

Aretxabaletako Gazte Asanbladak jai eguna antolatu du udazkenari agur esateko. 10:00: mendi irteera egingo dute Aitzulo plazako pergolatik. 15:00: babajana egingo da Matikuan. 19:00: Bermeoko Tan Tan Eroak arituko dira giroa alaitzen. 23:00: kontzertua egongo da gaztetxean.

13

astelehena

■ ZINEA

La lengua de las mariposas, 19:00 eta 21:30, Alai zineman.

■ MUSIKA EMANALDIK

Leizarra Musika Eskolak antolatuta, abenduaren 13an hasi eta 21era bitartean musika eskolako ikasleen musika emanaldiak eskainiko dituzte, Musika Eskolan. 18:00.

12

igandea

■ ZINEA

La lengua de las mariposas, 17:00, 19:30, eta 22:00, Alai zineman.

■ PILOTA JAIALDIA

Euskal Presoak Euskal Herrira Aretxabaletako taldeak profesionalen pilota jaialdia antolatu du. 12:00etan Iturrigorri pilotalekuan.

“Jokin Zaitegi oroitzuz” lehiaketa



1950.ean euskarazko aldizkari bat sortu zuen Guatemalan. 1956tik aurrera, Miarritzen kaleratu zen eta, 1960an desagertu arte, belaunaldi ezberdinetako idazle euskaldun askoren lanak kaleratu izan zituen: Sebero Altube, Orxie, Labaien, Peillen, Mirande, Etxaide, Gandiaga, Txillardegia... Zein aldizkari da hori?

• Zeruko Argia • Euzko Gogoa • Loiolako izarra

Aukeratu erantzun zuzena eta bidali, zure datuekin, abenduaren 15a baino lehen AEDra (Pablo Uranga kalea 6 behea) edo Arrasate Pressera (Otalora lizentziatua, 31). Jasotako txartel guztien artean “Euskal Herria eta bere herrialde historikoen kondaira” mapa eta liburua zotz egingo dira.



Izen-abizenak.....
Helbidea:.....
Teli:.....
Erantzun zuzena:.....

14

asteartea

■ ZINEA

La lengua de las mariposas, 19:00 eta 21:30, Alai zineman.

■ ANTZERKI EMANALDIA

Pinpilipausa antzerki taldeak "Zapata hondaturik" antzezlan eskainiko du, 6-8 urte bitarko haurrentzat. Kurtezbarri eskolan. 17:00.

■ BERNARDO ATXAGA ARRASATEN

AEDk antolatzen duen Jokin Zaitegi itzulpen sariketa dela eta, Bernardo Atxaga eta Asun Garikano idazle eta itzultzaileak eta senar-ematek. "Literatura eta itzulpe-

gintza" hitzaldia eskainiko dute. Monterronen. 19:30. Bestalde, Jokin Zaitegi itzulpen lehiaketaren sari banaketa abenduaren 16an egingo da. Iñaki Mendiguren idazle eta itzultzailea izango da hantxe. Monterronen. 19:00.

15

asteazkena

■ EGOBERRIKO KONTZERTUA

Arrasate Musikalek antolatutuen kontzertuetako lehenengoa eskainiko dute, Arrasate Musikaleko areto nagusian. 19:00

■ ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Santamasetako erakusleho lehiaketan parte hartzeko abenduaren 14a baino lehen eman beharko da izena Udaletxeko Kultura sailean. Erakuslehoak abenduaren 15etik urtarrilaren 2a bitartean egon beharko dira erakusgai. Irabazleak 30.000 pta eskuratuko ditu. Bigarren saria 25.000 pta.koa da eta hirugarrena, berriz, 20.000 pta.koa. Sari banaketa abenduaren 21ean egingo da. 18:00.

■ UARCAPEKO SARRERAK

Abenduaren 21ean egingo den Uarkape Udaltalalekuaren inaugurazio jaialdiko sarrerak abenduaren 14an jarriko dira salgai. Goizez 11:00-13:00 eta arratsalde 18:30-20:30, Amaia antzokian. 2.500 pta kostako da eta gehienez sei salduko dira.

■ AUTOENPLEGUA ETA ENPRESA

Arrasateko Udaltalaren Enplegu Zerbitzuak enpresa ekimen berriak bultzatzeko ikastaroa antolatu du. Helburua da ekimen berriak eta autoenplegua zuzpertztea. Ikastaroa autoenpleguaren bidea jorratzeko eta negozio-ideia bat abian jartzeko asmoa daukaten promotoreei zuzendua dago. Urtarrilaren 20a arte iraungo du. Argibideak 943 79 09 00.

■ BATZAR NAGUSIA

San Frantzisko Xabier ikastola kooperatiba elkarteak batzar nagusia egingo du abenduaren 16an, ostegunean. Beste batzuen artean, 1999-2000 ikasturteko gestio plana eta SFX ikastola Herri-Onurako Kooperatiba izendatzeko estatutuen aldaketaren proposamena aztertuko dira. Gazteluondon. 18:00 eta 18:15.

■ SUKALDARITZA IKASTAROA

Loramendi euskara elkarteak eta Tril emakume taldeak sukaldaritza ikastaroa antolatu dute. Abenduaren 14tik 18ra bitartean Marualde elkarte-
an izango da. 16:30.

■ MUSAKOLA ETA ITURRIPE

Musakola eta Iturripeko pilotalekuak, futbol, tenis eta squasheko jokalekuak alokatu nahi dutenentzat bilera egingo da abenduaren 15ean, Musakolako bulegoetan. 18:00.

■ UR ETA ZABOR ZERGA

Arrasateko Udaltal jakitera eman duenez, 1999ko 3. hiru-hilabeteko ur eta zabor zergaren ordainagiriak borondatez ordantzeko epea urtarrilaren 28a arte egongo da zabalik. Epe hori pasa ondoren, ordaindu gabe dauden ordainagirik %20ko iguera izango dute.

Beka baterako deialdia

Gaia:

Telebistako irudi artxiboa antolatu.
Aldizkariko argazki artxiboa antolatu.

Baldintzak:

Euskera ondo menperatzea.
Dokumentazio edo artxibo antolakuntzan trebatua izatea.

Aurkezteko epea eta tokia:

1999ko abenduaren 17a arte
ARKOren egoitzan - Otalora lizentziatua, 31
20500 ARRASATE

Argibideak: 943 71 23 90



Concepcion Tamayo

DERMATOLOGOA

Txanda aurrez eskatu

Maalako Errabala, 23 2A
Tel.: 943 77 05 57

Arrasate

LANAK

OTALORAN

Pilotalekua egiteko lanak.

SANTA TERESAN


Santa Teresa eta Hondarribia kaleen arteko saneamendu lanak.

OBENERREKAN

Gernika kaleko oinezkoen pasabidea berritzeko lanak.

MARKULETEN


Urbanizazio lanak.



Biztanleak: 24.257
Eremua: 33 Km²
Garaiera: 211 metro

Eguraldiaren aurreikuspena

Donostiako Metereologia Zentrua




OSTIRALA 10

Lainoak izango dira nagusi goizean eta tenperatura hotza izango da. Elur maila 900 eta 1.500 m. artean egongo da.



LARUNBATA 11

Euri arriskua izango dugu goizean, baina arratsalde parterako hoberrantz egingo du. Haizea, mendebaldetik, ahul.



IGANDEA 12

Temperaturak berdin segituko du eta euri arriskua areagotu egingo da. Haizea hego mendebaldekoa izango da, hezeagoa.

Ilargia



Ilgora

Abenduaren 16an, ostegunean, ilgora izango dugu.

Mezak

Parrokia

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean:

09:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz)

12:30 (elebiduna)

San Frantzisko

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean:

09:00 (euskaraz)

10:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

19:00 (elebiduna)

Uribarri

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean:

11:30 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

San Andres

Ostiralean

18:30 (Otoitz ordua)

Larunbatean

18:30 (Bezpera abestiak)

19:00 (elebiduna)

Igandean

10:00 (erdaraz)

11:00 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

Santa Teresa

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean


10:30 (erdaraz)

11:30 eta San Isidron (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

Urkuluko uraren maila

%65,2



Urteurrena

Orain dela urtebete *Arrasate Pressen*:

- Abenduaren lehen astea estreinatu zuten Uribarriko erretiratuek etxe berria.
- Azaroaren 30ean onartu zen 1999rako aurrekontua. 3.491.306.713 pta.
- *Arrasate Presse*k hamar urte bete zituen abenduaren 2an.

astea bi hitzetan

■ Pilotalekua itxuratzen

11 egun geratzen dira Uarkape Udal Pilotalekua irekitzeko eta lanak aurrera doaz, martxa onean.

Pilota partidak ezezik, bertso ekitaldiak, herri bazkariak, musika ekitaldiak... denetik egingo da Uarkapen. Halakoetan, gehienez jota 1.600 lagun sartuko diral. Bestela, 1.042.

Arrasateko Udalak eta Arrasate Pilota Taldeak horrela erabakita, talde honek ez, baina Aukeak gobernatuko du Uarkape.

Hil honen 18an partida bereziak jokatu dira: Santamasetako finalak eta Erro enpresak antolatuko duen jaialdi apartekoa.

Hilaren 21ean, berri, Titin eta Zezeagak, Goñi II. eta Elkoro izango dituzte aurrez aurre. Sarrerak abenduaren 14an jarriko dira salgai, Amaia antzokian, 2.500 pta.tan.

■ Zalduspe-Osinaga zubia

Bi hilabete eta erdiko lanak bukatu ostean, ireki da Zalduspe-Osinaga izena duen zubi berria. Eskualde Ospitala eta Musakolako A-20 ingurua lotzen ditu, JMA enpresaren atzealdetik.

Donostiako Injelan enpresak diseinatu du zubia, nahiz eta egitura Nafarroan egin den. Zubia bera 28 metro luze, 4 metro zabal eta 4,20 metro garaia da eta hamalau foku ditu oholtzan sartuta, gaeuz zubia argitzeko. Baranda berriz, altzairu herdoilgaitzez egin da. Ia 55 milioi pta kostatu da.

Lehenjende asko ibiltzen zen ospitala eta Musakola arteko tarte honetan, antzinako burdinbidearen gainean egin zen bidean. Ibilbide arriskutsua zen, ordea, estua eta bisibilitate eskasekoa zen eta.

Zubi berriari esker, San Andresko eta kaleko jendea

lasai ibiliko da Musakola aldera eginez. Baita Musakolakoak ere, ospitalera joan nahi dutenean edo pasiatzeko bestela.

■ Erguingo liburutegia

Erguin Herri Eskolak aurrea hartu dio Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokari. Izan ere, urtero bezala, haurren liburutegiko atea ireki dizkiete ikasleen gurasoei.

Liburu gomendagarrien zerrenda banatu, zenbait gomendio eman eta gurasoak umeen irakurzaletasuna pizteko partaide izatea zen ekimen honen helburua. Aurtentzako kontsulta liburuek eta hiztegiek leku berezia izan dute erakusketan.

Era honetako ekimenak gero eta gehiago egiten ari dira gure inguruko ikastetxeetan. Kontua da gurasoek informazio ona izan dezatela liburuak erosi aurretik.

“ Ekologi arazoari buruz orientabideak planteatzen ditut nire liburuan. Baina hala beharko du.

Mendebaldean gero eta kontzientzia handiago dago. Euskal Herriko egoera txarrenetakoa da. Hemen izan dugun txikizioa eta daukagun mentalitatea Hirugarren Munduan ere ez dituzu topatuko: beste inon ez dira komunikabide azpiegiturak berri berri egiten, daudenak birmoldatu beharrean. Zergatik ez dira Europako beste herri menditsuen eredia jarraitzen? Hemen gertatu den hondamendia eta dugun logika depredatua ez daude beste inon”.


ANTXON MENDIZABAL
(Putz, 1999ko abendua)



■ Goiena Komunikazio Zerbitzuak

Debagoieneko euskara elkarteak komunikazio zerbitzu bateratu bat sortu guran dabilta, bailararako. Arkok horren berri eman zuen joan den asteko batzar berezian. Debagoienerako komunikazio zerbitzu bateratu bat nahiko lukete egin, Goiena izena izango lukeena. Proiektu horretan Debagoieneko herri guztiak eta Aramaio sartuko liriateke.

FELIPE MADINA ZURAK
Zarugalde, 40 ARRASATE
Tel.: 943 79 13 78


Alkoholarekin arazoak daukazu? Agian, “Alkoholzale Anonimoek” lagundu ahal dizute!!
Alkoholzale Anonimoak
3. areako Informazio bulegoa (Gipuzkoa) • Tel.: 943 61 93 38

“PAL”
burdindegia, brikolage eta tresneria
Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

Bakea behar dugu



Jendetsua izan zen "Bakea behar dugu" leloarekin herriko plazan egin zen bilkura.

"Argi eta garbi adierazi behar dugu bakea sendotzeko, oraindik ere, denon artean askoz gehiago egin dezakegula. Gure etorkizunaren protagonista ez da ETA, euskal gizartea bai- zik". Hitz horiek esan zituen Juan Jose Ibarretxe lehendakariak joan den asteartean. Eta horregatik, joan den ostiral eguerdirako bost minutuko kale bilkura deitu zuen erakundeen aurrean.

Arrasaten ere erantzun

zabala izan zuen deialdiak eta jende ugari elkartu zen udal- txe aurrealdean, "Bakea behar dugu" aldarrira egitera.

Bezperan Xabier Zubizarreta alkateak ere kale bilkura- ran parte hartzeko deia egin zien arrasatearrei. Eta plazan, eguerdian, herritar ugari elkar- tu zen. Ordezkarri politikokoak ere hantxe izan ziren: EA, EAJ, EH, Ezker Batua eta PSO- Eko kideak. Baita Jarrai, AED, AUKEA, parrokoa, sindika-

tuak, Iturbide egoitza, Amnistiaren Aldeko Batzordea, Eus- kal Herriaren Euskaraz eta bes- te talde askoko kideak ere. Sal- buespen bat izan zen nabar- mena: PPko zinegotzi edo ordezkari politikorik ez zen izan.

Bost minutuko ixilunea egin zuten. Izan ere, eguerdi- ko kanpai hotsekin batera, udal ordezkariak pankarta ireki eta herriari begira jarri ziren, bakea behar dugula aldarrikatuz.

Erakusleihen lehiaketa

Santamasak eta Gabonak gai- nean ditugula aprobetxatuz, Arrasateko Udalak eta Ibai Artek erakusleihen lehiaketa antolatu dute. Parte hartu nahi duten guztiak abenduaren 14a baino lehen eman beharko dute izena Udalaren Kultura Sailean.

Irudimena, orijinaltasuna, itxura ona, Santamas edo Gabonetako gaiak eta mezu baliogarria. Hauetxek dira sariak emateko orduan udalak kontuan hartuko dituen ele- mentuak.

ERAKUSKETA

Abenduaren 15etik 2000ko urtarrilaren 2ra arteko epea hartuko da kontuan, erakus- leihoak epaitzeko orduan.

SARIAK

Hiru sari emango dira. Lehe- nengoak, plaka bat eta 30.000 pta irabaziko ditu; bigarre- nak, 25.000 pta; hirugarrena, 20.000. Azken hau Ibai Arte elkarteak emana.

Marcos Vitoria hil da

Arrasateko Alderdi Sozia- listako sortzailetariko bat, Markos Vitoria, joan den astelehenean hil zen Frantziako Tolosan, 93 urterekin. Emaztea, Mercedes Jauregi, eta bi biloba utzi ditu. Tolo- san bertan erraustu zuten asteazkenean, ekitaldi zibil xume batean, Gernikako Arbola abestiaren soinuen laguntzarekin.

Gaztetxo zela, Elorrion eta Soraluzen morroi ibili zen. Gero Union Cerrajeran sartu zen. UGTko kide egin zen eta, beste kiderekin bate- ra, Arrasateko Alderdi Sozia-


lista sortu zuen, 1927an.

Arrasateko Iraultza Batzor- deko kide izan zen 1934ko gertaeretan. Ondorioz, hiru hil- dako —Marcelino Oreja,


Dagoberto Resusta eta Euge- nio Eduarra— eta ihes eginda- ko jende asko egon zen, tarte- an Markos. Frantziako Tolo- san aterpetu zen. Arrasateratu

zen berriro. Gerra ostean berriz Tolosara egin zuen ihes, emaztearekin. Harrez- kero hantxe bizi izan da. Alaba bat izan zuten, aspaldi hil zitzaiena. Franco hil eta gero, hauteskundeak egiten ziren guztietan Mondragoera etor- tzen zen, emaztearekin bate- ra, botoa ematera.

1998ko apirilaren 25ean Arrasateko Alderdi Sozia- listak omenaldi beroa eskai- ni zion udaletxean. Egun hartan izen berria eman zio- ten ordua arte Herriaren Etxea izan zenari: "Markos Vitoria Elkarte Sozialista".



Telefono mugikorra gauza arrunta da dagoeneko



**Airtel
Formula
Pack
Eskaintza**

**12.000 pta
deietarako.**

**Airtel
hemen:**

AIRTEL ARRASATE
Maalako Errabala, 33
20500 Arrasate
Tel.: 943 79 50 32



*16%ko B.E.Z. barne. Eskaintza 2000ko urtarrilaren 16a arte.



Altzari rustikoak

*Komodak, armairuak,
kutxak, mahaiak,
erlojuak, liburutegiak,
arasak eta beste
hainbat apainketa-
gauzaki.*

• *Zaharberritzeak.*

ZUMADIA
ANTIGÜEDADES

Garibai auzoa, 12 • Oñati eta Zubillaga auzoen artean • Tel.: 943 71 60 75

Ordutegia:

Astelehenetik ostiralera:
09:30 - 13:00 eta 16:00 - 20:00
Larunbatetan: 09:30 - 13:00

Etxeko konponketak

Tapizeriak

Konrado

Aulkiak, besaulkiak, sofak,...

Eskatu aurrekontua.

Nafarroa etorbidea, 23 MI11
Tel.: 607 45 72 51 • Arrasate

Eraikuntzak

Berecibar

Santamaina, 34 • Tel.: 943 79 09 63

Igeltzaritza



Izcue Irurzun

Igeltzaritza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

Iturgintza

Aretxabaleta

Durana, 16 behea (Aretxabaleta)

Tel.: 943 79 17 53



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea, 39 behea • Tel.: 943 77 01 85

Margoak

APAIN

MARGO ETA APAINKETA

Matiena, 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



10.000 KOLORETAKO MENUA

Ferrerias, 36 behea • Tel.: 943 79 12 87

Igeltsoak - Apaintzea

Pako eskaiolak s.l.

Markulete, 14
Tel.: 943 77 08 21

Pertsianak

PERSIANAS CARPER

Gabriel Hernández

• Egurrezko, plastikozko eta aluminiozkoak •
Seguridadekoak • Motardunak • Dekoraziokoak •
Anboto2. 1esk. **Tel.: 943 79 67 43**
Mug.: 630 27 46 09

Txorrota

Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

Elektrizitatea

ARANZABAL



KOOP. E.

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta, 15

Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83



RRASATE

Elektrizitatea

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak

24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77

Gipuzkoa etor., 37 • Tel.: 943 79 65 93

HILEKO AHOLKUA

Hormak margotzera goazenean:

Kolorea da hormak margotzerakoan lehenik aukeratu beharrekoa. Lekua argitsua eta handia bada, hobe da kolore biziagoak erabiltzea.

Espazioa txikia denean, aldiz, aproposagoa da kolore argiak erabiltzea, kolore biziak espazioa murrizten duela baitirudi.

Gida honetan azaldu nahi baduzu deitu
943 71 23 91 telefonora.

SAN NIKOLAS OPAROA



Ehundaka gaztetxo bildu ziren herriko plazara, San Nikolas eguneko bolo-boloa jasotzera. Guraso

mordoa ere hantxe ziren, zer jausiko zain. Denak konforme joan ziren. Datorren urtea arte.



ARRIARAN II

Arriaran II.ak, bere izena daraman pilotaleku berritua inauguratu zuen, Zubillagan joan den asteazkenean.

Arriaran II. pilotalekua orain dela 40 urte eraiki zuten Zubillagako auzotarrak. Orain, erabat berritua, Joxe Arriaranen argazkia eramango du. Zorionak!



NAFARREN EGUNA, JOTA ARTEAN

San Frantzisko Xabier eguna izan zela eta, Debagoieneko nafarrek beren zaindariaren eguna ospatu zuten joan den larunbatean. Aires Navarros Iruñeko taldea izan zuten lagun. Herriko plazan harrapatu genituen, pintxoak eta Nafarroako ardoak prestatzen ari zirela. Debagoiengan 500 bat nafar bizi dira. Horietatik gehienak, 250 bat edo, Arrasaten. Egun zoragarria igaro zuten.

**Monte
taberna**

Maalako arrabala, 11
Tel.: 943 79 20 56

Sagardotegia

ITURRIETA

Aragoa auzoa
Tel.: 945 44 53 85
ARAMAIO

Altzariak
Diseinua
Apainketa
**M
ARENAZA**

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

Jostuna edo joslea, orraz

“Santa Luzia, egune motza da eta gaba luzie” dio esaera zaharrak. Eta aspaldian horrela izaten da, jostunen eta josleen eguna ospatzen dutenentzat, batez ere.

Egun hori beti ospatu da, baina aspaldian afariak eta ezustekoak normalak bihurtu dira.

Gizonekin egindako biluzte kilikagarriez ari gara, noski. Izan ere, boladan jarri dira jostunen eta josleen afarietan mutilen *strip-tease* beroak antolatzea. Bistan da “bistie konserbateko grazije” ezezik, bistie alaitezko aitzakia ere ematen diela santak.

Bosgarren mendekoa da Luzia anderearen egunari egindako lehen aipamen idatzia, ohitura kristauan. Dioklezianoren garaian bizi izan omen zen emakume hau. Erromatar enperadore honen garaian kristauen aurkako hilketa asko egin ziren eta, dirudienez, Santa Luzia ere horrela hil zen. Erromako bidean ibiltzen ziren merkatariek egin zuten ezaguna Santa Luzia eta Ravenan aldaire nagusian ere ipini zuten.

Kanon erromatarrak beste hiru lagunekin batera aipatzen du Santa Luzia. Izan ere, Ines, Zezilia eta Agedarekin

batera, martiri da elizarentzat Luzia.

Eskandinaviako lurraldeetan Santa Luzia argiarekin lotzen dute: “Santa Luzi eguna, argitu orduko iluna”. Eurek diotenez, “Santa Luzia da paganotasunetik atera eta fedearen argitara eramango gaituena”.

Baina historia hauek guztiak alde batera lagata, hemen eta gure artean, Santa Luzia eguna jostunen eta itsuen eguna da. Emakume asko eta asko dira egun horretan egiten diren afarietara joaten direnak, baina gure elkarrizketatuek aitortu diguten bezala, “afari horretara joaten direnen artean

gehiago dira orratz bat zer den ez dakitenak, jostun eta josleak baino”.

ASPALDIKO OHITURA

Cati Andresek 33 urte daromatza josle lanetan. Baina berak dioenez, josle izan aurretik ere, ikasten ari zenean hasi zen Santa Luzia eguna ospatzen. “Urte asko dira Zigorrolako Iru tabernan elkartzen ginela. Josle eskolan aritzen ginenak egiten genuen afaria hantxe”.


Baina hori baino zaharragoa da santaren egunean meztara joan eta gero txokolata jatearena. Eta horretaz gogoratzen dira Gloria Martinez,



1972ko abenduaren 13an Zigorrolako Iruan

Pilar Santos eta Segunda de Paz. Gloriak kontatu digunez, “Arruena baserrian ikasten genuen josten. Gaztelaniaz esaten genuen hitz bakoitzeko hamar zentimo jarri behar izaten genituen, Santa Luzia eguneko txokolatadarako. Egun hartan arratsaldeko 19:00etan meztara joaten ginen San Isidroko elizara eta, ondoren, txokolatada izaten genuen”.

Gaur egun jaia bestelako ñabardura batzuk hartzen ari da. Segundaren ustez, “martxoaren 8an emakumeen eguna aldarrikatzen baldin bada, Santa Luzia egunean emaku-



Juani Lopez, Encarna Nuñez eta Cati Andres.

“Eskaera handia dago, baina geroz eta gutxiagok hartzen dute orratza”

az artean beti



o Inean ospatu zuten Santa Luzia eguna.

meen eguna ospatzen da. Emakumeok elkartzeko darabilgun aitzakia bihurtzen ari da eta tabernariak ere konturatu dira horretaz. Horregatik hasi dira antolatzen afari erraldoiak eta ikuskizunak, mutilen *strip-tease*-ak eta antzekoak”.

Pilarrek 80 urte beteko ditu urtarrilean eta bizitza osoa eman du josten. Ez da abenduaren 10ean egingo diren afari horietara joango. “Oporretara noa. Dena dela, ez dut inoiz ospatu, ez dut afari horietara joateko ohiturarik”. Pilar jostuna da eta Arrasaten ere ezaguna da oso, Markiegiren txalekoak berak egiten ditu eta. Orainsu ere Arrostitz dantz taldeko mutilen txalekoak egin berri ditu. Hamasei guztira: “zer egingo dut, bada, nire iloba dantzaria bada?. Bizi osoa igaro dugu josten. Neu hortitxik bizi izan naiz urte luzez, baina ni jostuna izan naiz. Josleen egoera beste bat izan da”.

JOSTUNA EDO JOSLEA

Jostuna bizibidez josten due-na da. Bereziki gizonentzako jantziak egiten dituen eskulangilea. Joslea, berriz, emakumeentzako edo umeentzako jantziak josten edo konpontzen dituen da, gehienetan emakumea.

Josleen egoera ez da jostunena bezain ona. Encarna Nuñezek dioenez, “josleok ez daukagu segurantzaz sozialik. Erregimen berezi bat izan beharko genuke, baina ez da profesio bezala ikusten”.

Eta horretan bat datoz gure lagun guztiak. “Jostunak profesioz ziren jostun eta josleak, bokazioz. Josleen irudia etxerako lagungarri izan da betidanik” dio Juanamari Arregik, ziurtasunez.

JOSTUN-JOSLE ONA

Neurri guztietako orratzak, artazi zorrotzak, titarea eta batez ere gogoia. Horixe behar omen da josten hasteko. “Jos-

tea atsegin behar da izan; ezin duzu denborapasa bezala hartu, bestela inoiz ez zara josle ona izango”, diote Maria Murillok eta Resu Perezek. Juani Lopezek dioenez, “joslea egin egiten da, josten eta plantxa egiten. Asko josi behar da”.

Baina geroz eta gutxiago dira josten dutenak. “Eskae-ra handia dago, baina geroz eta gutxiagok hartzen dute orratza. Gutxi irabazten da eta ordu asko lan egiten da”, Juani Lopezek iritiz.

ETORKIZUNA

Jostunak egon egongo dira aurrerantzean ere. Neurrirako jantziak eskatzen dituztenak dauden bitartean eta izen handiko diseinatzaileak dauden bitartean. Baina josleak geroz eta gutxiago egoteak aldaketa ekar dezake euren lan egoeran. Cati Andresen ustez, “gazteak dira euren lan egoera duinaren alde borrokatu behar dutenak. Nik lagundu

egingo diet, baina laster erretiratu egingo naiz. Dena dela, merkatuak eskatzen baldin baditu eta gutxi baldin badira, horrek on egin diezaioke eta behingoz profesio bezala onartua izan daiteke”.

SANTA LUZIA

Bitartean Santa Luzia eguna ospatzen segituko dute. Garai batean San Andresko Itsason eta Zigorrolako Iru tabernetan egiten ziren afariak; gaur egun Kataiden, Mondragon hotolean, Musakolako hostalean eta antzekoetan egiten dira. Larunbatean ere, abenduaren 10ean, jatetxe bat baino gehiago emakumez gainezka beteko da eta, biluzten diren gizonei begira edo barik, emakumeak elkartu egingo dira. “Beharbada ez lehen bezala jostun eta josleen kontuekin, baina emakume artean, azken batean”.

Marijo Deogracias



Segunda de Paz, Resu Perez, Maria Murillo, Juana Mari Arregi, Pilar Santos eta Gloria Martinez.

MILAGROS SALVADOR (MISIOLARIA)

“Elkartasuna ez da lims”

Milagros Salvador Otadui Bilbon jaioa da, baina ama Mondragoeko Iramendi baserrikoa du, San Andres auzoan dagoena, hain zuzen ere. Beraz, erdi mondragoetarra da.

1965. urtean misiolari egin zen, Kristo Jesusen misiolaria. 1971ko urtarrilean, berriz, Afrikara joan zen. 25 urtean han bizi izan da, Kongon. Hasieran irakaskuntzan aritu zen, oinarrizko ikasketak zituzten emakumeen heziketan, osasuna, laborantza, jantzigintza... eta antzekoak irakasten. Ondoren, irakaskuntza ofiziala utzi eta emakumeak alfabetatzen ibili da...

Azken bi urteotan Pueblos Hermanos izeneko Gobernuz Kanpoko Erakundean dabil lanean.

— Zer egiten du Pueblos Hermanos GKEk?

— 1980an sortu zen, Kristo Jesusen misiolariok Hirugarren Munduan ditugun egi-

tasmok garatzeko asmoz. Gaur egun 28 bat proiektutan ari gara lanean: Venezuelan, Bolivian, Ekuadorren, Kongon, Kamerunen, Indian, Filipinetan... Beren garapenean lan egin dezaketen herriekin egiten dugu lan bereziki, ikasteko eta ikasitakoak praktikan jartzeko gaitasuna dutenekin.

Honetaz gain, gure inguruan elkartasuna pizten ere saiatzen gara. Orain, adibidez, Euskal Herrian ordezkari-tza berria dugu Bilbon, Castañosa 34-5. C kalean.

— Zergatik hartu zenuen misiolari izateko erabakia?

— Nire bizia Ebangelioko pobreekin konpartitu nahi dudalako.

— Zure lanaren zati handi bat emakumei eskaini diezu; badago horretarako arrazoirik?

— Afrikan emakumea da garapenaren funtsa. Bera da


ama, bizia ematen duena, familiaz arduratzen da, haurren hezkuntzaz... Bera da familiaren arduradun nagusia. Afrikako emakumea ekinzailea da, borrokalaria eta aldi berean, alaia. Egunero bere familiaren iraupenari aurre egiten dion pertsona jakintsua da. Hala ere, gizatalde guztietan moduan, alboratuta dago. Seme-ala-bak eskolara bidaltzeko arazoak dituen familia batean, neska kabeti izango dira bidaltzen dituzten azkenak. Emakume afrikarraren alde lan

egitea inbertsio ona da, ekinzailea da eta erantzun egingo du.

— Emakume afrikarra bakarrik da horrelakoa?

— Asia, Ozeania eta Latimeriketara ari diren lankideek uste bera dute. Emakumeak oso egiteko garrantzitsua du gizartean eta alboratuta

“Hirugarren Munduko emakumeak oso egiteko garrantzitsua du gizartean eta, hala ere, alboratuta dago”



sna ematea”

dago. Normaltzat jotzen da emakumeek lan egitea, familia aurrera ateratzea... baina batzuetan ordain gogorra du horrek: gizonaren zerbitzuan egotea, hitz batean esanda, besteen zerbitzurako dagoen bigarren mailako pertsona bat. Hala ere, denok dakigu “emakume bat hezitzea nazio bat hezitzea dela”.

— Zer eman dizute Afrikan pasatu dituzun urte horiek guztiek?

— Bizia ospatzen ikasi dut, jai giroaren benetako zentzua ezagutzen eta, batez ere edonor onartzen, nahiz eta oso gauza gutxiren jabe izan. Hau da, anaitasunaren zentzua ikasi dut bereziki. Anaia hitzak familiaren izaera gaingitzen du. Anai-arrebak gara oro har, elizaren baitan gauden pertsona guztiak.

Esan beharra dago, hala ere, Afrikan errazagoa dela solidarioa izatea. Nik ikasi eta ikusi dut gutxi duenak errazago konpartitzen duela duen hori. Zenbat eta gehiago eduki, zailagoa egiten da.

— Etorkizunerako asmo berezirik bai?

— Afrikara itzultzeko asmoa dut. Hala ere, orain dudan lanak ez nau Afrikatik guztiz urruntzen, izan ere herrialde harekiko elkartasun zubiak eraikitzen nabil orain.

— Zein litzateke zure guraririk handiena?

— Egun batean elkarri anai-arreba deitu ahal izatea, nahiz europarrak izan, eus-

kaldunak, afrikarrak edo inuitak. Anai-arreba izateak duen esanahi osoarekin, noski.

— Etortzen zara Euskal Herrira?

— Kanpoan izan naizen urte hauetan opor garaian etorri izan naiz Euskadira. Baita Mondragoera ere, familia bisitatzeraz.

— Nola ikusten duzu hemengo bizimodua?

— Uste dut hemen oso ondo bizi dela, bizi maila altua dago, oro har. Honetaz gain, Mondragoen izan nintzen azken aldian izugarri harritu ninduen kanpora zenbat ireki den ikusteak. Ezberdintasunari ireki dizkio atek Mondragoek.

Kanpotik, Euskal Herriaren izaera oso itxia dela ikusten da; horrexegatik eman zidan Arrasatek hain irudi ona. Zorionak eman beharrezan nago.

— Aholkuren bat eman-go zeniguke?

— Mundura zabaltzea, solidarioak izatea.

Hirugarren Mundua noiztzen ari den pobrezia historiaren ondorioa da. Ez dira pobre eta ezjakinak Hirugarren Mundukoak izatearren.

Informatu egin behar da eta belaunaldi berriak hezi behar dira, datorren gizartea solidarioa eta justua izan dadin.

Elkartasuna ez da noizean behin limosna ematea. Elkartasuna da Hirugarren Munduko pobrezia arazo estrukturalen desagertzearen alde borrokatzea. ■

LANA BILATZEKO BIDEAN...

Lan orientabidea ikastaroa

Arrasateko Emakume Saila, emakumeak lan esparrura hurbiltzeko ekintzen artean, emakumeei zuzendutako lan orientabide ikastaro bat antolatzen ari da, SARTU Prestakuntza eta Lanbidea Elkartearekin batera.

- **Ikastaroaren helburua:** Proiektu profesionalean eta lana aurkitzeko planean orientazioa eman.
- **Norentzat :** Unibertsitariotik nahiz lanbide formaziodun emakume langabearentzat.
- **Tokia:** IMIn, Arrasate Pasealekuan.
- **Ordu Kopurua:** 42 ordu talde lantegia, 26 ordu bakarreko orientabidea, eta 10 ordu jarraipena.
- **Ordutegia:** goizez 09:00 - 12:00
- **Noiz:** abenduan hasi eta martxora bitartean.
- **Izena emateko epea:** Abenduak 21, asteartea, Arrasateko Emakume Sailean, telefonoa: 943 79 41 39



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila ■

Uarkape Udal Pilotalekua inaugurazio ekitaldia

Eguna: 1999ko abenduak 21

Ordua: gaueko 22:00ak

Aldez aurretiko salmenta Amaia antzokiko takilan

Abenduaren 14tik aurrera

Ordutegia: goizez 11:00-13:00

arratsaldez 18:30-20:30

Prezio bakarra: 2.500 pta

(gehienez 6 sarrera pertsona bakoitzeko)



ARRASATEKO UDALA



Tau Baskoniaren bisita

Datorren asteazkenean, hilak 15, Arrasate Kirol Proiektuko (AKP) neska-mutikoek sekulako entrenatzaileak izango dituzte. Egun hartan haur guztiek kirol berbera egingo dute: saskibaloia. Izan ere, Tau Baskonia gonbidatu dute Arrasatera eskola kirolaz arduratzen direnak, Kenci Arrasate Saskibaloia taldearen laguntzaz. Saskibaloia sustatzeko hainbat ekintza egiten ari da Gasteizko taldea inguruko herri nagusietan. Eta iaz bezala, aurten ere Arrasatera etorri da.

AKPko begiraleei ondo iruditu zaie, "kirolari handiak eta lehen mailako kirol taldekoak ikustean, areagotu egiten delako neska-mutikoengan kirola egiteko gogo". Tau Baskoniaren bisita Arrasate Saskibaloia taldearekin batera antolatuta du AKPk, "kirola eta batez ere saskibaloia sustatzeko".



Iaz ere Iturripen izan zen, orduan Capeloren taldea zena.

👉 Ekitaldi asko

Arratsalde partean hainbat ekitaldi egingo dira Iturripen kiroldegian. Lehenik eta behin, alebin mailako AKPko ikasleek hainbat partida jokatuko dituzte. Hori 16:45etik 18:30ak arte izango da. Orduan hasiko da Tau Baskoniaren entrenamendua. Izan ere, gaztetxoengan saskibaloia sustatu ezezik, euren lana egin beharko dute. Hori dela eta, datorren asteko entrenamendua Kenci Arrasateren jokalekuan egingo dute. Eta hantxe izango da, nola ez, Aker, Tau Baskoniaren maskota.

20:00etan haurren zorrena izango da. Orduan AKPko ikasleek Tau Baskoniarekin jokatzeko aukera izango dute. Opariak ere banatuko dira Iturripen. Beraz, jai mundiala izango da kiroldegian.

Animatu eta parte hartu!

Asteburuko hitzorduak Azaroak 27, larunbata

👉 AURREKIROLA SASKIBALOI TXAPELKETA

(Finalak)

Gazteluondo

- 09:30 SFX A - SFX E
- 09:30 Erguin B - SFX C
- 10:15 S. Viator B - S. Viator A
- 10:15 SFX D - Merced B
- 11:00 Aramaio - SFX B
- 11:00 SFX U - Merced A
- 11:45 San Andres - Musakola
- 12:10 San Andres - Erguin A
- 12:30 Musakola - Erguin A

👉 MULTIKIROLA PILOTA TXAPELKETA

Iturripen 10:00etan

NESKAK

- SFX A
- SFX U
- San Viator

MUTILAK

- SFX C
- Aramaio
- San Viator A
- San Viator C
- San Viator B

ATLETISMOA

Iturripen 10:00etan

NESKAK

- Merced
- San Viator
- Erguin

MUTILAK

- Merced
- Erguin
- SFX U
- SFX A
- SFX B

👉 MULTIKIROLA ESKUBALOI TXAPELKETA NESKAK

Mariaren Lagundia

- 09:30 Mariaren Lag. - S. Viator
- San Viator B
- 10:00 San Viator - Arrasate A


NESKAK

- Almen
- 09:00 Almen - SFX A
- Jpintza
- 10:00 Aranzadi A - SFX B
- Jpintza
- 10:00 La Merced - San Viator

MUTILAK

- Jbarra
- 11:00 Txantxiku 1A - SFX

👉 Mendi irteera



Aitzorrotzera irteera egingo dute AKPkoek asteburu honetan. Igandean, Gatzagatik aterako dira. Gogoratu izena eman behar izaten dela aurretik. Ordua eta lekua betikoak izango dira



Emaizak

A taldea

Bar Nuevo 2- Betrayer 13
 Kobate Harrobia 6- Irati STS 10
 Goma 2 2- DA Iristu 5
 AT Lokala 7- AC Surkos 5
 Giraldilla Con 11- Saukelu Scr. 2
 Kanpazar 1- Atxanta el Retorno 1
 Totem 2- Etxe Mobil 9
 Xhasss Ugarte - You Know
 Sokoakoak 5- Fraguel Gol 6
 Komando Alp. 6- Ume Zikinak 6

B taldea

Makai 9- Koka Juniors 13
 Makanudos 10- Aldibi 1
 Aurrera Bolie 0- IKP 4
 EPEH 2- Leya 4
 Borrock & Roll 3- Branka Tab. 3
 Dribling 2- Etxerat Tab. 1
 Kamasutra 4- Alai Gozokiak 4
 Serengeti 1- Txeyenex 5
 Garaje Oscar 1- Timoftol 1
 KK Jauraritzza 5- Sas T 2
 Potroak 3- AKTA 2

Sailkapenak

A taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.	
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldi	Aurk.	Guzt.	
AT Lokala	4	4	0	0	25	9	8	
Ume zikinak	4	3	1	0	29	18	7	
K. Alpargat	4	3	1	0	16	8	7	
Irati STS	4	3	0	1	30	14	6	
You Know	3	3	0	0	18	8	6	
AC Surkos	4	2	2	0	23	23	5	
Kanpazar Harrobia	4	2	1	1	21	9	5	
DA Iristu	4	2	1	1	13	10	5	
Orlando	3	1	2	0	20	12	4	
Sokoakoak	4	2	0	2	17	15	4	
Kobate DKB	4	2	0	2	17	19	4	
Betrayer	4	2	0	2	22	15	4	
Girandilla Con.	4	2	0	2	20	23	4	
Fraguel Gol	4	2	0	2	15	17	4	
Goma 2	4	1	0	3	17	19	2	
Xhasss Ugar.	3	1	0	2	12	24	2	
Totem	4	1	0	3	12	25	2	
Sau. Scream	4	1	0	3	10	19	2	
Etxe Mobil	4	1	0	3	16	22	2	
Atxanta el Ret.	4	1	0	3	6	34	1	
Bar Nuevo	4	0	0	4	6	32	0	
Lontxo Tab.	3	0	0	3	0	3	0	

B taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.	
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldi	Aurk.	Guzt.	
KJ Basati	4	4	0	0	34	20	8	
Dribling	4	4	0	0	24	5	8	
IKP	4	4	0	0	23	9	8	
KK Jauraritzari	4	4	0	0	20	5	8	
Etxerat Tab.	4	3	0	1	24	12	6	
Timoftol SMD	4	2	0	2	25	13	5	
Borrock & Roll	4	2	1	1	25	12	5	
Txeyenex	4	2	0	2	9	15	5	
EPEH	4	2	0	2	21	18	4	
Aurrera Bolie	4	1	2	1	13	16	4	
Serengeti	4	2	0	2	10	15	4	
Branka Taberna	4	1	1	2	24	20	3	
Garaje Oscar	4	1	1	2	20	14	3	
Makanudos	4	4	0	2	20	29	3	
Kamasutra	4	1	1	2	18	14	3	
Alai Gozokiak	4	1	1	2	13	21	3	
Potroak	4	1	1	2	10	16	3	
AKTA	4	1	0	3	14	12	2	
Leya	4	1	0	3	9	20	2	
Sas T	4	0	1	3	12	21	1	
Aldibi	4	0	1	3	8	35	1	
Makai	4	0	0	4	16	44	0	

ARRASATE KIROLAK
 Kontzezino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

Hurrengo partidak / 5. jardunaldia

abenduak 11, larunbata

Zaldibar	Epailea
08:50 Sas T - Kamasutra (Branka Taberna)	
10:00 Branka Taberna - KK Jauraritzari (Sas T)	
11:00 Betrayer - Kobate Harrobia (KK Jauraritzari)	
12:00 Irati STS - Komando Alpargat (Betrayer)	
13:00 Etxe Mober - Goma 2 (Komando Alpargat)	
14:00 Akta - Garaje Oscar (Goma 2)	
15:00 Timoftol SMD - Aurrera Bolie (Garaje Oscar)	
16:00 Leya - Makai (Aurrera Bolie)	
17:00 Koka Juniors - Potroak (Makai)	
18:00 Etxerat Tab. - Borrock & Roll (Potroak)	
19:00 You Know - Atxanta el Retorno (Etxerat Tab.)	

Iturripe A

15:00 Bar Nuevo - Xhasss Ugarte (Giraldilla Con.)

16:00 Ume Zikinak - Giraldilla Con. (Bar Nuevo)
 17:00 IKP - Aldibi (Ume Zikinak)

Iturripe B

15:00 Makanudos - Dribling (Orlando)
 16:00 Fraguel Gol - Orlando (Makanudos)
 17:00 Saukelu Scream - Sokoakoak (Fraguel Gol)

abenduak 12, Igandea,

Zaldibar
 09:50 Alai Gozokiak - Serengeti (AC Surkos)
 11:00 AC Surkos - Totem (Serengeti)
 12:00 Txeyenex - EPEH (Totem)
 12:00 DA Iristu - Kanpazar Harrobia (Txeyenex)

Atsedena: AT Lokala

Pilota jaialdia Aretxabaletan

Aretxabaletako Euskal Presoak Euskal Herrira taldeak lehen mailako pilota jaialdia antolatu du astebururako. Abenduaren 12an, igandean, bi partida jokatu dira Iturrigorri pilotalekuan.

Jaialdia 11:30ean hasiko da eta aurrez aurre bi bikote gazte arituko dira. Batetik Murua-

mendiaraz eta Idiakenez antzuolarrak eta bestetik Aretxabale-tako Errasti anaiak.

Bi bikote hauen arteko partidaren ostean, Asegarcek antolatutako binakako beste norgehigoka bat jokatu da. Oraingoan profesionalen artekoa. Koka eta Taberna batetik, eta Agirre eta Zearra bestetik.

Ikuskizuna ziurtatuta dago.

Pilotazaleak, beraz, bada-kizue. Gainera bi partiden arteko atsedendian Asegarce pilota enpresaren txandal bat zozkatuko da eta, horrekin batera, bi sarrera Bergarako pilotalekuan Asegarceren pilota partida bat ikusteko.

Euskal Presoak Euskal

Herrira aldarrikatzeko pilota jaialdia goizeko 11:30ean hasiko da.

Sarrerak aurrez Aretxabaleteko Zaraia, Artano eta Gurea tabernetan, Eskoriatzako Zarautzarra tabernan eta Arrasateko Monte eta Ziorla tabernetan eros daitezke, 1.000 pta.n.



Imanol Agirre
25 urte
Artea (Bizkaia)



Juan Koka
26 urte
Donostia



Jose Jabier Taberna
29 urte
Lesaka (Nafarroa)



Oier Zearra
22 urte
Galdakao (Bizkaia)

Kirola Euskaraz ikastaroak Debarroan

Mankomunitateko kirol zerbitzuak hainbat ikastaro antolatu ditu Kirola Euskaraz egitasmoaren barne, kirola sustatzeko asmotan. Eskubaloi, pilota eta futbol ikastaroak, hain zuzen ere. Denak ere abenduaren 13an egingo dira, Debarroko hainbat herritan. Ikastaroak doan izango dira, gainera.

ESKUBALOI IKASTAROA

Debagoieneko eskubaloi jokalariei eta entrenatzaileei zuzenduta, Bergarako Labe-garrietako kiroldegian eskubaloi ikastaroa egingo da. Xabier Mikel Rekondo, Portland San Antonio taldeko jokalaria arituko da irakasle lanetan, arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Defentsarako teknika izango du hizpide Rekondok. Argibide

gehiagorako 943 77 91 67 telefonora deitu.

PILOTA IKASTAROA

Debagoieneko pilotari eta entrenatzaileentzat ere bada beste ikastaro bat. Elgetako udal pilotalekuan Aitor Elkoro pilotari elgetarra eta Aritz Berraondo antzuolarra arituko dira ikastaroa ematen. Eskolak arratsaldeko 19:00etan hasiko dira. Argibideak: 943 77 91 67.

FUTBOL IKASTAROA

"Nola hobetu jokalarien indarra eta lastertasuna" izango da Debagoieneko futbolzale eta entrenatzaileek jasoko duten ikastaroa. Hau ere abenduaren 13an izango da, baina oraingoan, Eibarko Unbe futbol zelaian. Eskolak ematen Aitor Zinkunegi eta Ina

Oiarzabal, Aurrera de Ondarroa taldeko entrenatzaileak arituko dira. Ikastaro honetan izena emateko 943 20 32 40ra deitu beharko da.

IKASTAROA 2000-AN

Urtarrilean hasi eta maiatza bitartean Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak eskainiko dituen ikastaroen berri ere badugu. Guztiak ere Kirola Euskaraz egitasmoaren barne egingo dira. Berotze ariketak, minak nola aurreikusi eta gutxitu; koordinazioa eta arintasuna gazteekin; defentsa lantzeko jokoak eta eraso lantzeko jokoak dira eskainiko diren ikastaroetako zenbait. Dena dela, informazio gehiago behar izanez gero, kiroldegira edo Mankomunitateko Kirol Zerbitzura jo dezakezue.

Sailkatze probak Anoetan

Joan den asteburuan parte hartze libreko atletismoko probetan izan ziren Arrasate Kirolak Atletiko Taldeko kirolariak. Maita Arizmendiarridak Gipuzkoako eta Euskal Herriko junior mailako txapelketarako txartela irabazi zuen. 11'08"ko denbora egin zuen 60 m. hesietan.

Jurdana Aiala, bestalde, txapelketatik kanpo geldituz 60 m.ko lasterketan. Dena dela, lehen urteko kadete honek Anoetan egingo diren lastertasun probetarako gonbita jaso du. Probak abenduaren 29an eta 30ean izango dira.

Jonhnan Perezek ere zailtasunak izan zituen pertika jauzian. 4,15 m.ra zegoen listoia bota egin zuen, pertikarekin arazoak izan zituen eta.

Eluska Zabalo Harresi aretoan

“Eluska”. Bere izena erabili nahi izan du Eluska Zabalo margolari gazte arrasatearrak Harresi aretoan jarri duen erakusketa izendatzeko. Areto honetan egiten duen bere lehen erakusketa izan arren, ezaguna da oso neska gazte honen lana.

Margotu dituen 170 margolanetatik 20 aukeratu ditu Harresiko hormetan zintzilikatzeko. Egin dituen azken hogeit hamar lanak, hain zuzen. Eta datozen bi asteotan, abenduaren 19a arte egongo dira ikus-



gai margozale guztientzat.

Kolorea eta egitura zaintzen ditu batez ere Eluskak bere lanak egiteko orduan eta zaintza hori argi geratzen da, bai, erakusgai dituen lanetan.

Behin baino gehiagotan kontatu dizuegun bezala, Eluska Iruñeko Arte Eskolan ari da ikasten. Bigarren maila egiten ari da eta dagoeneko ugari dira irabazi dituen margo lehiaketak. Batzuk aipatzeagatik, “Manuel Viola margo azkarren lehiaketan” bigarren saria, “Donostiako kale

margo IX. lehiaketa” edo “Arrasateko Aire zabaleko margo lehiaketa”.

1995ean hasi zen Eluska erakusketak egiten eta Bergara, Hernani, Lezo, Bergara, Donostia eta Gasteizen, besteak beste, jarri ditu bere lanak.

Abenduaren 19a arte izango duzue arrasatear honek egiten dituen margoek gozatze-ko parada. Ordutegia, aste-gu-netan 18:00-20:00 eta jaie-gu-netan, 12:00-14:00/18:00-20:00.

Putz: kultura bihilabetekaria kalean

“Andy Warhol, XX. mende-ko artista modernoena XX. mendeko eraikuntzarik modernoena... Edo XXI. mendeko lehen eskultura publi post-modernoena? Ze, argi dago: Guggenheim ez da museoa, eskultura baizik. Museoa Bilbo da, hiria museotuta-moskeatuta?”. Horrelako baieztapenarekin kaleratu dira *Putz* aldizkariak. Azal deigarriaren zergatia azaldu nahian, Pelmanen kolaborazioa eraman dute editorial lerrotara.

Putz aldizkaria kalean da dagoeneko. Bihilabetekaria da. Sei arrasatearrek osatzen dute erredakzio taldea: Balen Tramon, Ramon Ugalde, Jon Ruiz de Zarate, Joxe Otadui, Iker Barandiaran eta Diego Martiartu. Baina horrez gain,



euskal kulturaren arloan eza-gunak diren hainbat pertsona ere baditu kolaboratzaile gisa: besteak beste, Pako Aristi, Juan Luis Zabala, Asier Serrano eta Kirmen Uribe idazleak eta Jexux Mari Irazu eta Unai Iturriaga bertsolariak.

Maketazioa, berriz, Jon Etxeberriak egin du, Arrasaten bizi den aretxabaletarrak.

LEHENENGO ALEA

Lehenengo ale honek 48 orrialde ditu. Egileak ez dira azalean geratu; mamian ere bada-gozerikusirik. Gizakion desio izkutueta barrena murgildu dira, gauzak argi eta garbi idatziz. Sexuari buruzko ler-roek, gainera, argazkiak dituzte lagungarri, eta ez halamoduzkoak.

GAI UGARI

Baina dena ez da sexua. Espe-txe-ko bizimodua ere azaldu nahi izan dute, Kepa Ur-ra pre-soaren gutun baten bidez. Mun-dua jasaten ari den globaliza-zio prozesua, berriz, Antxon

Mendizabalen bitartez jorratu dute. Anari Azkoitiko bakar-lariaren ibilbideari ere egin diote gainbegiratu, eta etor-kizunerako dituen asmoei buruz ere galdetu diote.

Kritika, ironia eta jakin-garriz betetako bihilabetekaria 450 pta.ren truke eskura-tu ahal izango duzue.

HARPIDETZA

Putz aldizkariaren harpide izan nahi duenak 2.700 pta ordain-du beharko ditu. Urtean sei aldizkari jasoko ditu eta liburu bat doan. Harpide egiteko Euskadiko Kutzako zenbaki honetan sartu dirua: 30350001570010072448.

Bazterrek nahasteko asmo-arekin kaleratu direla diote ara-satear hauek. Baietz lortu!

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE



Danona

KARROZERIAK

Konponketak, txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06

EKON ("ETNIA 2000" DISKOA ARGITARATU BERRI DU)

"Mezuak arimaraino heldu eta han eztanda egin behar du"

Ekon taldeak bigarren diskoa kaleratu berri du, "Etnia 2000" izenarekin. Durangoko azokan salmenta onak izan dituzte, bai diskoarekin, baita jantziekin ere. Bederatzi abesti ditu diskoak. Badu, bai, aldaketarik aurrekoarekin alderatuta. Dena den, gizartea kritikatzan segitzen du Ekonek. Horretan ez du aldatu J. Sangre, Iñigo Bakero, Xabi Metal, Yago Moon eta Ibanen taldeak.

— Zergatik jarri diozue diskoari "Etnia 2000" izena?

— Izen horrekin entzule eta jarraitzaile kopuru zabalagoarengana heldu nahi dugu. Lau hizkuntzatan gauza bera esan nahi du izenburuak, kultura askoren batasuna islatzen du. Gazte garenon edo gazte sentitzen garenon bilkura da "arima errebeldeen belaunaldi berria".

— Badu ezberdintasunik aurreko diskoarekin?

— Musikari dagokionez, Ekonek aurrera egin du. Estiloa tinko finkatu da. Alde batetik, melodia landuagoak daude, baina orokorrean lan luze hau gogorragoa da, *heavy*goa. Doinu elektronikoen erabilerak berezko zentzua lortu du. Teknikoki ere aurreratu dugulakoan gaude. Bestalde, partaideei dagokienez, fitxaje berriak ditugu: Ines eta Naiara bikote arrasatearra. Eurak arduratu dira Ekon-i goxotasuna emateaz, infernuko aingeruak dira eta, ja, ja, ja.

— Zein da bigarren diskoaren oinarria?

— Errebeldia.

— Nork egin ditu abestien hitzak?



— Abesti gehienak Ibanek idatzi ditu, beti ere taldekideen oniritziarekin, baina aurreko diskoan ez bezalaxe, bi lagun izan ditugu: "Ezin ihesi" abestia Eider Zumalde (*Power Ranger*) lagunaren burutapena izan da eta "(H)ura", berriz, Goio Etxabe preso arrasatearraren olerki batean oinarriturik dago: "Ez gaude denok".

— Zertaz dihardute?

— Jeneralean, baikortasuna da nagusi gure hitzetan. "Etnia 2000" izenburuak ongi batzen ditu abesti guztiak. Dena den, aitortzen dugu zuzenak eta gogorrak direla. Hitzen mezua musikarekin batera jaso behar da, arimaraino heldu eta hantxe eztanda egin dezan. Entzun "Etnia 2000"!

— Sortu zenetik, zein bilakaera izan du taldeak?

— Esperientzia beti da baliagarria.

Perfekzionismoa eta eraginkortasuna landu ditugu, baina garrantzitsuena eta ederrena, jarraitzaileekin lortzen dugun komunikazio gordin eta zuzena da.


— Arrasaten egingo duzue aurkezpen kontzerturik?

— Dударik ez, baina aurreko lanarekin egin genuen bezalaxe, nahiago dugu lehenengo kanpoan jo eta kanpoan entrenatu, Arrasate herriari "Ekon" bere osotasunean oparotzeko.

— Zer nolako harrera izango duela espero duzue?

— Aurreko diskoarekin bizi izan genuena errepikatu nahiko genuke, nola ez! "Zurrunbilo kaotikoak" oinarri bat ezarri zuen, beraz, fruitu gehiago nahi ditugu. Pozik eta gogoz gainezka gaude. Datorrena datorrela, ehuneko berrehun gozatuko dugu. Geroaren aurpegia tatuatu dugu, gazte gaizto, eutsi zeureari!

"Lau hizkuntzatan gauza bera esan nahi du izenburuak, kultura askoren batasuna islatzen du".



Programazioa

OSTIRALA 10

- 13:30 Albiste aurrerapena.
- 13:35 Gatza eta Berakatza. Igor Ezpeletarekin.
- 13:45 Guganda (errepika).
- 20:00-20:30-21:00 Berriak. Eguneko albisteak, Maider Osak aurkezturik.
- 21:35 Soinuz Blai. Azken orduko bideo klipak, Miren Gonzalezek aurkeztuta.
- 22:00 Gatza ete Berakatza (errepika.)

LARUNBATA 11

- 13:30 Guganda eta Soinuz Blai saioen errepika.

IGANDEA 12

- 13:30 Guganda eta Soinuz Blai saioen errepika.

ASTELEHENA 13

- 13:30 Albiste aurrerapena.
- 13:35 Gatza eta Berakatza. Alberto Elortzak prestatutako plater bat.
- 13:45 Astebete (errepika).
- 20:00-20:30-21:00 Berriak.
- 21:30 Mondrasport. Itxaro Zubillagak eta Xabier Urzelaik asteburuan

kiroletan izandakoaren berri emango digute.

- 22:00 Gatza eta Berakatza. (errepika.)

ASTEARTEA 14

- 13:30 Albiste aurrerapena.
- 13:35 Gatza eta Berakatza. Alberto Elortzak prestatutako plater bat.
- 13:45 Mondrasport (errepika).
- 19:25 Jolasplast.
- 20:00-20:30-21:00 Berriak.
- 21:30 Hamaika Magazin saioan Gabonetako kontuak izango dituzte hizpide.

- 22:00 Gatza eta Berakatza (errepika).

ASTEAZKENA 15

- 13:30 Albiste aurrerapena.
- 13:35 Gatza eta Berakatza. Alberto Elortzak prestatutako plater bat.

- 13:45 Hamaika Magazin (errepika).
- 20:00-20:30-21:00 Berriak.
- 21:30 Aurrez Aurre. Edurne Mujikak aurkeztutako saioa. Arrasate eta garai baten nolakoa zen ezagutuko dugu gonbidatu berezi baten laguntzaz.
- 22:00 Gatza eta Berakatza (errepika).

OSTEGUNA 16

- 13:30 Albiste aurrerapena.
- 13:35 Gatza eta Berakatza. Alberto Elortzak prestatutako plater bat.
- 13:45 Aurrez Aurre (errepika).
- 20:00-20:30-21:00 Berriak.
- 21:30 Zortziko Txikia, Anartz Agirrek aurkezturik. Xabier Amurizari elkarrizketa eta Bergaran jokatu zen Gipuzkoako

- herri arteko bertso txapelketako final laurdenak ikusteko aukera eskainiko du.
- 22:00 Gatza eta Berakatza (errepika).
- 22:15 Soinuz Blai. Aste honetan Edu Abasolok emango digu musikan gertatu diren azken nobedadeen berri.

OSTIRALA 17

- 13:30 Albiste Aurrerapena.
- 13:35 Gatza eta Berakatza. Igor Ezpeletarekin.
- 13:45 Zortziko Txikia (errepika).
- 20:00-20:30-21:00 Berriak.
- 21:30 Astebete. Asteko albisterik inportanteenak, Maider Osak aurkeztuta.
- 22:00 Gatza eta Berakatza (errepika).
- 22:15 Soinuz Blai. Edu Abasolo.

Gatza eta Berakatza

Sukaldaria: Alberto Elortza (Zelai Zabal jatetxea) Oñati.

NOIZ

PLATERA

Astelehena 13	Atun entsalada, tomate eta pistatxoekin.
Astearte 14	Barazki eta zigalita salteatuak.
Asteazkena 15	Oilasko izterrak saltsa gazi-goizan.
Osteguna 16	Txitxarroa, kalabaza eskama eta trufak.
Ostirala 17	Fruta zopa.

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiraletan 5etatik 8etara.

Tel.: 943 79 26 99



PEUGEOT

Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

URRATS

AHOLKULARITZA

CARIBAL, 3

Tel.: 943 79 87 74

ARRASATE

Eguneroko albisteak

Berriak egunero, 20:00, 20:30, 21:00

ATBn egiten den saiorik zailenetako bat da albistegia. Goizean kazetariak eguneko albisteen zerrenda prestatzen dute. Prestatu eta ardurak banatu: nor, noiz, zein albiste landuko duen.

Arratsaldeko 14:30ean erredakzio burua eta errealityzatzaila biltzen dira, aldaketarik sartu eta egokitzapenik egin behar den ikusteko.

Arratsaldeko 16:00etan Maider Osa iristen da. Iazko irailetik, bera da albistegiko aurkezlea. Goizetan Leioara joaten da, unibertsitatera, kazetaritzako lau garren kurtsoa egitera.

Iritsi bezain laster, ATBko albistegia nola doan ikusten du: nor zer duen, baita berak ere. 18:30ak inguruan hirugarren bilera egiten da. Oraingoan erredaktore burua, errealityzatzaila eta Maider elkartzen dira, gauzak gehia-

go zehazteko eta azken orduko aldaketak egiteko. Ordu-rako, kazetariak beren albisteak lantzen ari dira.

Irudiak eta adierazpenak hartu eta gero, telebitara jaitsi eta ahotsa sartuko dute. Teknikariak irudiak editatuko ditu ondoren, tes-tuaren arabera. Horrela, sei-zazpi albisterekina.

Arratsaldeko 19:00etan, ATBko guztiak kea dariela egoten dira.

Lasterka eta presaka, jantzi, makilatu eta azken orduko aldaketak egingo dira. Argiak bere tokian dau-de eta kamerak puntuan. Ordua da. Jane Fondak *Txinako Sindromea* filman egiten zuen moduan, Maider ere jari eta, Berrien kareta pasatu bezain laster, "Gabon, ikus-entzuleok..." sartuko da, lasai eta patxadaz.

Horrela, egunero.

Asteburuetakoa lantaldea



Markel Zabala eta Monika Belastegi.

Arrasate Telebistak bi lantalde nagusi ditu: astean zehar lan egiten dutenek osatzen dute lehen-a; bigarrenak, berriz, asteburu eta jaiegunetan jarduten du lanean. Bi lagunek osatzen dute bigarren talde hau: Markel Zabala eta Monika Belastegi.

Markel arrasatearra da, 22 urte ditu eta teknikari lanetan dihardu. San Viatorren ikasi eta gero, Andoainen egin zituen bideo ikasketak. Astean zehar ETBn egiten du lan. Asteburuan, ostera, hementxe.

Monika Belastegi Bergaran jaio zen orain 27 urte. EHU-n egin zituen kazetaritza ikasketak, Leioan. Euskara irakasle bezala eta kazetari moduan du eskarmentua. *Euskaldunon Egunkarian* ibilia da, bekadun gisa eta baita *Extran* ere.

Markel eta Monika joan den ekainean hasi ziren lanean talde moduan. Larunbat-igandeetan eta jaiegunetan Arrasaten eta inguruetan gertatzen den guztiaren berri jasotzea dute eginkizun. Kirolak eta kultura ekintzak lantzen

dituzte batik bat. Ordutegia ere, dagoenaren arabera dute. Biek aho batez aitortzen dutenez, larunbata da egunik lanpetuena, ekitaldi gehienak egun horretan izaten dira eta.

Zenbait aldiz, ekitaldi bat baino gehiago tokatzen dira ordu berean. Horrelakoetan, kamerariak kazetari lanak egin behar izaten ditu: Monikak galdera prestatu eta Markelek gainerakoa egin: irudiak hartu eta galdera egin. Monika, bien bitartean, beste leku batean arituko da, beste teknikari batekin.

Ez dira kezkatzen jendearen erantzunarekin. "Kiroletan jendeak badaki zertan gabiltzan eta ondo atenditzen gaitu. Kaleko jendea, ordea, beldur handiagorekin. Hala ere, oro har ondo portatzen dira gurekin", esaten dute biek. "Askotan gonbidatzen gaituzte jatera. Jeneralean ez dugu onartzen, lanean segitu behar dugulako, baina pare bat aldiz geratu izan gara. Jendea oso eskuzabala da gurekin".



Maider Osa.

Peque choll

AURREZTU %70 BERRIA BEZALAXE EROSIZ

Jantziak (0-16 urte) • Haurrentzako den dena • Haurdunaldirako jantziak • Mozorroak • Jostailuak • Oihalak • Liburuak • Kaseteak • Bideoak • Dekorazio osagarriak

Isasi kalea, 18 / EIBAR / Tel.: 943 20 03 10 Interesatuko zaizu!

Umeentzako gauzen

SALEROSKETA

Ez bota... Ez gorde... Ez oparitu...

SALDU!!

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

- Etxe txiki eta merkea salgai Eibarren. Tel.: 943 12 71 04.

3. Errentan emateko

- Etxebizitza alokagai ikasleentzat. Tel.: 943 79 39 02. Gaeuz.
- Apartamentu bat alokatzen da Hendaiako hondartzaren ondoan. Guztiz jantzita dago, berogailu, terraza eta lorategiarekin. Astebukaera edo denboraldietarako. Tel.: 943 79 86 65 eta 656 76 02 58.
- Etxebizitza alokagai, Eskola Politeknikotik gertu. Tel.: 943 79 51 88. 14:30etik aurrera.
- Ikasleentzako etxebizitza alokatzen da San Andresen. Tel.: 943 77 03 53.

4. Errentan hartzeko

- Gela bat alokatu nahiko nuke. Tel.: 943 62 13 57.
- Logela bat alokatuko nuke, berdin zait beste batzuekin bada. Tel.: 943 52 41 30. Xabi, gaeuz.
- Bikote batek etxebizitza hartuko luke alokairuan, posible balitz Arrasaten. Tel.: 617 01 47 90.

5. Etxeak osatzeko

- Neska bat behar da Arrasaten etxebizitza osatzeko. Tel.: 600 64 61 38. 20:00-22:00.
- Mutil batek etxebizitza bat osatuko luke Arrasate edo inguruetan. Tel.: 943 71 20 99. Jabi, lanordutan.
- Etxebizitza merke bat alokatuko nuke Arrasaten edo Aretxabaletan. Utzi zure datuak telefono hauetan: 943 79 34 37 edo 943 79 15 95.
- Etxebizitza osatuko nuke Arrasaten otsailetik aurrera. Tel.: 943 61 99 24.

GARAJEAK

7. Saldu

- 40 m²ko garajea salgai, Laubiden, Roneo ondoan. Tel.: 943 79 63 79.
- Trastelekudun garajea salgai Uribarri etorbidean. Tel.: 943 77 06 68.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontakatuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otorala Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

- Garajea salgai Kontzeziño kalean. Tel.: 943 79 54 07.

9. Errentan emateko

- Garaje itxia alokatzen da. Tel.: 943 79 19 64. 20:00etatik aurrera.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

- Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100 m²ko eta bi solairuko tokia salgai. Tel.: 943 79 42 65.
- Taberna salgai, ongi kokatua, eta lanarekin. Tel.: 696 36 41 25.
- Lanean diharduen taberna-erregia salgai. Tel.: 943 76 23 08. Manolo.

14. Errentan emateko

- Bost pertsonentzako lokal txikia alokagai, prezio onean. Tel.: 629 89 95 53 eta 630 20 56 70.
- San Bizente kalean 60 m²ko etxabea alokagai, berogailu eta guzti. Kontsulta edo ofizinarako egokitua dago. Tel.: 943 79 18 95.

- Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100 m²ko eta bi solairuko loka alokagai. Tel.: 943 79 42 65.

LANA

17. Eskaintza

- Neska, umeak zaintzeko prest. Eskola partikularrek ere emango lituzke, ingelesa bereziki. Arrasaten eta Eskoriatzan. Tel.: 606 75 59 13.
- Neska prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74.
- Neska prest orduka garbiketa lanak egiteko. Tel.: 943 71 53 74.
- Esperientziadun emakumea prest goizetan, pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko. Tel.: 943 79 40 72. Vitori.
- Emakumea prest goizez lan egiteko. Tel.: 943 79 40 72. Vitori.

- Neska euskalduna, administrazio eta komertzial tituluduna, prest alor honetako lanak egiteko. Frantsesa eta ingelesa menperatzen ditut. Tel.: 943 79 45 24 eta 943 75 50 45. Ane. 20:00etatik aurrera.

- Neska euskalduna eta esperientziaduna etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko prest. Tel.: 943 79 45

24 eta 943 75 50 45. Ane. 20:00etatik aurrera.

- Esperientziadun emakume euskalduna orduka etxeko lanak egiteko bulegoak garbitzeko prest. Tel.: 943 79 37 68.

- Ospital laguntzaile tituluduna prest pertsona nagusiak eta gaixoak zaintdu eta eramateko, auto handi batean. Tel.: 609 77 01 33.

- Neska gaztea prest umeak zaintdu edo zerbitzari lanak egiteko. Tel.: 943 79 68 77.

- Esperientziadun neska umeak zaintzeko edo beste edozein lanetarako prest, arratsaldean. Tel.: 639 48 00 28, gaeuz. 945 27 90 43, egunez.

18. Eskaerak

- 25-45 urte bitarteko emakumea behar da Arrasateko arropa denda batean arratsaldetan lan egiteko. Tel.: 943 79 16 12.

- Sukaldaria behar da asteburuetarako. Ahal bada, esperientziaduna. Tel.: 943 78 34 79.

- Neska edo emakumea behar da bi ume zaintzeko. Tel.: 943 77 00 19.

- Umeak zaintzeko pertsona bat behar da, erreleboka. Tel.: 943 79 14 39. Idoia.

- Pertsona bat behar da zerbitzari lanak egiteko. Tel.: 943 76 22 68.

- Emakumea behar da umeak zaintzeko eta etxekolanak egiteko, Aretxabaletan. Tel.: 943 77 17 57. 20:00-22:00.

- Pertsona bat behar da sukaldean lan egiteko. Tel.: 943 79 00 34.

- Umeak zaintzeko neska bat behar da. Tel.: 943 77 17 97.

- Pertsona bat behar da sukaldeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 24 58.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

- 1. eta 2. Hezkuntza eskolak ematen dira, euskaraz zein gaztelaniaz. Tel.: 943 79 83 46.

- Ingeles filologia ikasten ari den mutil batek ingelesezko eskolak emango lituzke. Eskoriatzan zein Arrasaten. Tel.: 943 71 47 85.

- Marraski artistikoa eta olio erako eskola partikularrek emango nituzke etxe etxe. Enkarguzko lanak ere egiten ditut. Tel.: 943 79 19 23.

21. Eskaerak

- Ekonomia zientzian lizentziaduna behar da eskola partikularrak emateko, euskaraz dakiena. Tel.: 943 79 33 91. 19:00etatik aurrera.
- Abenduan zehar alemanierazko eskolak jasoko nituzke. Tel.: 943 79 99 82. Miren.

MOTORRA

23. Saldu

- R11-TSE autoa salgai. Egoera eta prezio onean. Tel.: 943 79 92 70.
- Motorra salgai, Suzuki GS 500 E. Karenatua eta faro bikoitza, 25.000 km. Asegurua maiatza arte. Estrak eta oso egoera onean. Prezioa: 400.000 pta. Tel.: 943 79 59 71. Mikel.
- R5 Turbo Fase 2, salgai. Tel.: 943 20 83 94 edo 600 89 02 45.
- Fiat Ducato furgoneta salgai. Hiru urte ditu, 1.600 kg. ko karga ahalmena eta garaia. Tel.: 943 76 09 12.
- Renault 21 TXE salgai. A/A, E/E, D/D, C/C, remolkatzeko gakoa. 120 cv. Merkea. Tel.: 600 43 78 02. Urtzi.

DENETARIK

26. Saldu

- Idazmakina elektroniko eramangarria salgai; kalitate handiko inprimatzea. Olivetti PT 505. Tel.: 943 79 99 29. 19:00-21:00.
- Rot Weiler txakurrak salgai. Interesatuok deitu 943 71 48 53 telefonora.
- Bulego altzariak salgai (mahaiak, aulkiak), oso merke. Tel.: 943 79 84 35.
- Ekonomia salgai. Egurra errez ura berotzen du, iturri eta berogailuetakoa. Tel.: 943 76 62 36.
- Akuariuma salgai, osagai guztiekin. 150 litrokoa. Tel.: 649 05 32 08.
- Kerosenozko berogailua, usainik botatzen ez duena, salgai. Kero markakoa da eta ia berria dago. Prezio onean. Tel.: 943 79 09 43. Denda orduetan deitu.
- Solarium bat salgai dago, oso gutxi erabilia. Tel.: 943 77 16 54.
- Convert Supreme karro-denda, osagai guztiekin salgai. Tel.: 943 77 13

81. Manuel. 20:00etatik aurrera.

• 42 zenbakiko zeharkaldirako eskiak salgai. Lowa marka; berriak daude. Deitu 943 79 84 04 edo 943 79 27 39 telefonoetara. Andoni.

• Urtebeteko Nintendo 64a salgai. Prezio onean. Tel.: 943 77 04 21.

• Opel Comborentzat, auto gainean trasteak eramateko bi barra salgai. Merke-merke. Tel.: 943 79 15 96. Unai.

27. Erosi

• Xoxoa disketeak ateratako LPak erosten ditut: Lisker, Itoiz, Itziar, etab. Tel.: 943 52 65 77.

31. Galdu

• Betaurrekoak galdu ditut Arrasate, Bedoña, Urkulu inguruan. Eskertuko nuke deitzea. Tel.: 606 86 71 97. Gaez deitu.

• Euskaltegiko apunteak eta koarderno bat dituen karpeta beltz bat galdu zaizkit erdialde inguruan. Aurkitu badituzu, deitu mesedez 943 79 99 55 telefonora. Virginia.

32. Aurkitu

• Puntuzko txaleko marroi eta grina aurkitu dut autobus geltokian, Interesatuok jo Abaroara eta Tere Guri-diz galdetu.

33. Bestelakoak

• Musika talde batek lokala behar du entsaiatzeko. Tel.: 943 79 81 19.

• Reiki II, esku ezartze saiok. Mota guztietako gaixotasunak: estresa, insomnia, buruko minak, beheraldiak. Tel.: 943 79 82 18. 20:00etatik aurrera.

HARREMANAK

35. Kontaktuak

• Deba Garaiko grafologo batekin harremanetan jarriko ginatke. Tel.: 943 71 25 11.

• Gasteizera arratsaldeko 16:00ak aldera egunero autoz baldin bazoaz, gastuak banatuko nituzke. Tel.: 943 79 58 88. Maite, gaez deitu.

• Bartzelonako telekomunikazio enpresa garrantzitsuak inbertsorea behar du (10 milioitik gora) Tel.: 943 22 51 61. Iñaki.

Aseguratu zeure autoa...



Arazorik Barik

Kontuak atera!

3.000.000 autotik gora aseguratuta lasai asko dabilzanak



MAPFRE

Lehenengoak auto aseguruetan

Garibai Etorbidea, 16 • Tel.: 943 79 89 00 / 943 79 67 22
Arrasate Pasealekua, 37 • Tel.: 943 79 71 31 / 943 77 03 04



I kusten duzuen paraje polit hau, Burgoskoa da, Covarrubias ingurukoa. San Pedro de Arlanza monasterioa da, hain zuzen ere.

1963. urtean mondragoe-tar talde honek Aste Santuko jai egunak aprobetxatu zituzten mundu zabalera ateratzeko. Oroitzapenerako argazki hau atera zuten.

Ezkerretik hasita, honakoak dira argazkikoak: Jose Azkarate, Felipe Yarza (betaurrekoduna); atzekoa Ignacio Sanz Etxarri eta ondokoa, Pedro Zumelaga. Aurrealdean Antonio Basabe dago, garai batean Eskola Profesionaleko zuzendari izandakoa; ondokoa, Antonio Balerdi eta azkena, David Arzamendi.

Argazkigilea Euskadiko Kutxako lehenengo langilea izan zen: Jose Aiala, geroago Lagun Aroko lehenengo zuzendaria izan zena.

*Argazkia eta
berriematea:
Pedro Zumelaga.*



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Esaiguzu nolakoa zaren...

Eta zein Aurreikuspen Plan komeni zaizun esango dizugu.

Aurreikuspen Plan
Moderatua



Aurreikuspen Plan
Mistoa



Aurreikuspen Plan
Aldakorra



ITALIAKO LOZA • ONTZI-GARBIGAILU ETA MIKROUHIN-LABERAKO BALIO DU

20 aleko ontziteria

Zure Aurreikuspen
Planari 500.000 pta.ko
ekarpena egiteagatik.

Osagaiak:
6 plater azal.
6 plater sakon.
6 plater txiki.
Erretilu bat.
Entsaladontzi bat.

Promozio hau 99-12-1etik 31ra
bitartean egongo da indarrean eta
2.000 unitateko muga izango du.

KUARTZOZKOA • ZUREZKO MARKODUNA
(PILA BARNE)

Hormako Erlojua

Zure Aurreikuspen
Planari 300.000 pta.ko
ekarpena egiteagatik.

Promozio hau 99-12-1etik 31ra bitartean egongo da
indarrean eta 2.000 unitateko muga izango du.

Zer meritu dauka horrelako autobatek 5 urteko garantia izateak?



5 urteko garantia kilometro-mugarik gabe

Nissan Primera berriaren zenbait desberdintasun lehen egunetik gozatzen da: Bere diseinu sendo eta kirol itxurakoa. Erosotasuna, dotorezia, eta barruko isiltasuna. Temperatura perfektua, klimatizagailuari esker. Bere Xenon optikei esker duen ikuspen bikaina. NBA (Nissan Brake Assist) galgatze-sistema, ahalegin txikiagoarekin galtze eraginkorragoa ziurtatzen duena. Multi-link suspentsio hobetua, egonkortasuna, kontrola eta arintasuna ematen diotenak. Alboetako eta aurreko airbagak, gorputz-enbor eta buruarentzat babesdunak. Cambio Hypertronic iraultzailea, CVT automatikoaren eta sei abiadurako eskuzko sekuentzialaren artean aukeratzeko modua eskaintzen duena. Motorraren gestio elektronikoa, biraketa-gama guztietan erregaiaren kontsumoa eta etekina hobetzeko. 1.6 (100 CV), 1.8 (114 CV), 2.0 (140 CV) eta turbodiesel (90 CV) bertsioetan. 4 eta 5 ateko eta SportWagon karrozeriak. Beste desberdintasun batzuk, berriz, urte batzuk geroago gozatuko dituzu. Garantia adibidez: 5 urte, kilometro-mugarik gabe. Hala ere, horrelako garantia eskaintzen badizugu, bistakoa da zergatia: seguruenik ez duzu sekula behar izango.

Bertsioen araberako ekipamendua.

Nissan Primera Berria. Bete-beteen autoa.

*Salneurri gomendatua (BEZ, Matrikulazio zerga, Garraioa, Nissan Assitance, banatzailearen eskaintzadun promozio kanpaina, eta 5 urteko Garantia kilometro-mugarik gabe). Penintsula eta Belear uhartetako baliagarria, stockean dauden ibilgailuentzat. Prever plana ez dago barne.

PRIMERA	Pta.tik
1.6 COMFORT 4/5 P (ABS/NBA)	2.339.000
1.8 COMFORT 4/5 P (ABS/NBA)	2.639.000
2.0 SPORT 5P (climat/Xenon argiak/ABS/NBA)	3.239.000
2.0 TD COMFORT 4/5 P (ABS/NBA)	2.579.000
2.0 TD COMFORT Sport Wagon (ABS/NBA)	2.729.000

5 urteko garantia kilometro-mugarik gabe.



Klimatizagailu be...



GIDATU ETA GO...

ALDIBI AUTOAK, S.A.

NISSAN BANATZAILE OFIZIALA

Zineola kalea, 1 - Tel: 949 71 00 00 - 48900 ARDABATE